

Karkara

karkara.com

Orioko eta Aiako aldizkaria · 2014ko apirilaren 25 · 350. zenbakia. 25. urtea



Aiarrei ahotsa ematea helburu

Hauteskundeetatik hiru urtera, Aiako Udaleko bizitzari oposizioko ikuspuntutik errepasoa eman dio Bilduko ordezkari Aritz Arrutik.

18

Argazkiak

Aristerrazuko plaza

15

Elkarrizketa

Uhats eta Giranice

25

Erreportajea

Orioko anbulatorioa

29

Akuilua hartuta

Jokin Zumeta

PUBLIZITATEA

TIEN 21 IZARRA BIDEOA **TIEN 21**

385C
Indesit
1.86 metro

7 kg / 1000 RPM
269C
Beko

259C
Philips

9C
Kingston

PLAN REMOVE

HASI DUGU!

aurreztu
-%60
tonerra hemen
bete ezkeru

10 hilabete interesik gabe

EUSKO GUDARI - 44 - 943 833 881

Orioko Herri Ikastola

Guraso Kooperatiba
ABESLARI KALEA, 8
TEL: 943 83 47 04
FAX: 943 13 09 38
orio@ikastola.net
www.oriokoikastola.net

Zaragueta Eskola

telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137a@ohedunza.net

kutixi
kafe-tegija
GOSARI GORROAK
Alkiza 9, 20810 Orio
Tel: 943 13 15 17

arkaitz taberna
orio

- Ogitarteak - Pintxoak
- Plater konbinatuak
- Karta
- Terraza ederrarekin
- Siro ezin hobea

abeslari kalea 6 - 943 83 16 57

GABON TABERNA

Pintxoak
Plater konbinatuak
Ogitarteak

943 83 06 09

Katu Horia
DINAGROFLYED BUDINO

ESTROPALARI, 10
20810 ORIO
Tel. 943 11 66 99
Larriaitzar
668 89 11 29

Faroeko bakailaia daukagu

ITSAS MENDI

gullizak

Eusko Gudari, 6 - Tel: 943 28 07 74 - Orio

Carmen eta Txomin
ARRANDEGIAK

943 83 05 37 / 943 83 27 47

MARISKADA
32,00€
Telf: 943890416

350

Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea

20810 Orio

943 83 15 27

karkara@karkara.com

www.karkara.com

Editorea

Karkara taldea
kultur elkarte

Zuzendaria

Lore Berasaluze

Erredakzio taldea

Onintza Aiestaran,
Olatz Artola,
Miriam Garcia,
Iñaki Iturain,
Idurre Lizarralde,
Elizabete Manterola
eta Rikardo Uzkudun

Publizitatea

Karkara taldea

Ale honetako

boluntarioak

Arturo Elozegi,
Jon Garate,
Garbiñe Manterola
Unai Manterola
Eneritz Odriozola,
Igor Salsamendi
eta Jokin Zumeta

Diseinua

Saioa Perona

Banatzaileak

Esti Uranga eta
Leire Zinkunegi (Orio)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.200 ale

KARKARAK ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako
esanen edota iritzien erantzukizunik. KARKARAN argitaratu-
takoak berreman daiteke,
osorik edo zatika, baldin eta
iturria aipatzen bada.



LAGUNTZAILEAK



Aiako Udala



Orioko Udala

Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabideaGipuzkoako
Foru Aldundia

60.000 euro zozketatuko ditu Orioko Herri Ikastolak Kilometroaken baitan. KARKARA

HASI BERTSOTAN

IGOR SALSAMENDI (DOINUA: ITSASOARI BEGIRA)

Nik hartutako eta besteei eskatutako konpromisoa

1

Nik hartutako konpromisua proposatzen den hartzia, kilometroen zozketari buruz bertso hontan idatzia, tokatu baino lehen hartziak badu bere garrantzia, tokatu ezkeror erreza baita aitzakietan galtzia, sari handia tokatu ezkeror *hamarren* bat bueltatzia.

2

60.000 euroekin zer egingo det? galdera, ba 54.000ekin egingo nukeen berbera, bi kasuetan diru asko da espero eztena gainera, baki aukera asko eztago baño askok deu aukera, ta era hortan tokatu ez arren guztiok poztuko gera

3

Gutxi duenak ematen badu badauka nahiko meritu, asko duenak ez ematea izan liteke delitu, eta oraindik ez duen horrek zer egin dezakeen aditu, 6.000 euro ikastolantzat beste guztia gelditu, ta albokoa gauza berdiña egitera konbentzitu.

Publizitatea kontratatzeko:

Karkara

688 859 682 (Idurre)

karkara@karkara.com



karkara.com

1943koek bazkaria egingo dute ekainaren 7an

Urtero bezala, 1943an jaiotakoek lagun arteko bazkaria egingo dute. Aurten 33 urte beteko dira bazkaria antolatzen hasi zirenetik.

Bazkaria ekainaren 7an egingo dute, larunbatarekin. 14:00etan izango da hondartzako Galerna jatetxean. Ordu erdi bat lehenago juntatuko dira plaza, 13:30ean.

Izena emateko, Fernando Larrañagari deitu behar zaio -943 832 666- maiatzaren bukaera baino lehen. ■

F.Larrañaga

Santioko eskolan ibilitakoei deia

Azken urteotako ohiturari jarraituz, Santio Errekako eskolan ibilitakook berriro elkartuko gara aurtengoan ere. Maiatzaren 3an izango da hori eta Ashe jatetxearen bueltan bilduko gara, bertan afaltzeko. Izena apirilaren 29a baino lehen eman beharko da Mari Eugeniari 600 743 189 telefono zenbakira deituta. n. ■ **Maria Eugenia**

Karela Kiroldegia; seia eta zazpia

Seia eta zazpia, bata bestearen ondo-

Gutunerako oharrak

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo gure lokalera eskura ekarri (Orioko edo Aiako Kultur Etxean) edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio. KARKARA bere egiten du eskutizak laburtzeko eskubidea.

rengo zenbakiak. Biak bateratuz, 67a. Aurretik “%” ikurra jarritz gero, % 67a.

Hori da karela kiroldegiko arduradunek, abonatuak ez garenontzat, klase desberdinetarako 10eko bonoaren gainean aplikatu duten prezio igoera, %67a. Bejondeizuela!

Igoera hau egun batetik bestera aplikatu dute, ikasturte erdian eta inolako azalpenik eman gabe.

Ondorioa? Zumbako klaseak hutsak, 10-12 ikaslek baja ematea.

Hori al da herrian zerbitzu publiko justu bat eskaintzea? Bejondeizuela!

Ez al dago beste aukerarik? Ezin al dira hilabeteko bonoak sortu? Edota ikasturtea bukatu arte lehengo prezioak mantendu? Edota prezio igoera justuago bat aplikatu? ■ **Zumba taldea**

Karela kiroldegitik

Karkarako irakurleei, Lerro hauen bitartez BPXport enpresak, egun Karela kiroldegia kudeatzen duen enpresak, 10 saioko bonoak direla eta sortu den iskanbilaren inguruan aipatu nahi dugu sortutako arazoaren inguruan ez dugula biltzeko edo informazioa zabaltzeko eskaerarik jaso eta gure uste apalean, arduradunekin hitz egin gabe KARKARAN adierazpena egin ez dela arazoak konpontzeko biderik egokiena.

Beraz, edozein zalantza aurrean, kiroldegiko erabiltzaile guztiak gonbidatzen ditugu kiroldegira hurbildu eta arduradunarekin hitz egitera, hori baita gure ustetan, arazoak eta gaizkiulertuak era hobereanean eta azkarrean konpontzeko bidea. ■ **BPXport Kirol Zerbitzuak**

Erria txikota astea

Kilometroak 2014 dela eta antolatuko den Erria txikota astearen baitan, Inurumen eta Garbitasun Batzordetik



bi ekimen burutuko dira: bigarren eskuko azoka eta piragua irteera.

Piragua irteera maiatzaren 16an egingo da, arratsaldean. Izen ematea Ikastolako idazkaritzan egin ahal izango da maiatzaren 7tik aurrera. Irteera egiteko Arraun Etxean dauden piraguak baliatuko dira, baina norberak ere bere piragua ekartzeko aukera izango du. Irteeran Oria itsasadarreko altxor ezkutuak ezagutzeko aukera izango dugu.

Bigarren eskuko azoka, berriz, mugikortasunarekin zerikusia duten materialak jarriko dira sal-erosten, hau da; bizikletak, kaskoak, patineteak, patinak, haurrak garraiatzeko aulkiak... Beraz, etxean alferrik dituzuen materialak saltzeko aukera paregabea izango duzue –salneurria saltzaileak jarri beharko du– eta behar duzuenak haiek erostekoa.

Azoka Maiatzaren 17an egingo da Herriko plazan. Goizean, 09:00etatik

Talai azpi inguruak zaborrez beteta darrai



KARKARA lagun batek bidalitako ar-gazkia da hau, apirilaren 8an ateratakoa. Eguraldi ona baliatuz, Talai azpira joan zen itsasoaz eta mendiaz gozatzera. Iristean, inguru zaborrez betea aurkitu zuen. Natura zaintzeko eta hondakinak zakarrontzira botatzeko eskatu nahi die oriotarrei beste behin ere.

10:00etara salgai jarriko den materiala uzteko tarte bat egongo da. Ondoren, 10:00etatik 13:00etara jasotako materiala salgai jarriko da. Azkenik, 13:00etatik 14:00etara saldu ez den materiala jasotzeko tarte izango da.

Aukera ederra gauzei berrerabilpen bat emateko! Animatu eta pentsatzen joan! ■ **Kilometroak 14-ko Ingurumen eta Garbitasun Batzordea**

Aiarrei deialdia

Esan eta esan ari gara. Matraka ederra emango dugu aurten. 25 urte egingo ditu KARKARAK ekainean eta egun hori antolatzeko bilerak erreskadan datoz, bata bestearen atzetik. Apirilaren 7an egin genuen azkena eta hurrengoa, berriz, maiatzaren 5ean izango da Aiako kultur etxean bertan. Ohi bezala, 19:00etan elkartzeko gara. Parte hartu nahi baduzu, zatoz hara, esku zabalik hartuko zaitugu eta! ■ **Karkara taldea**

ZORIONAK!

Kartelak euskaraz

1975. urtean jaiotakoak, 1971. urtekoak, 68an jaio zirenak... Urte beretan jaiotakoekin afaldu edo bazkaldu eta garai zaharrak gogora ekartzeko diren kinta afari mordoa egin da (eta egingo dira) asteotan.

Askaria dagoela iragarri behar dela eta, kartelen bitartez egitea erabakitzen dute gehienek; eta kartel horietan euskaraz egitea.

Euskararen erabilera paperera ez mugatzea espero dugu gainera, eta horrenbestez, oroimenaren kutxa ireki eta istorio zaharrak euskaraz kontatu izanak poztuko gintuzke. Euskara ahora eramatea garrantzitsua baita.

Hortaz, bilkuraren berri euskaraz ematea zoriontzekoa iruditzen zaigu, are gehiago oraindik ere kartel asko gaztelera hutsean ikusten diren garaiotan. Beraz, zorionak dagokionari euskararen normalizazioan apurtxo handi hori ere jartzeagatik! Eta gainerakoak informazioa (dena delakoa) euskaraz ematera animatu nahi ditugu lerrootatik.

JAIOTAKOAK

- Ez dago erregistratutako jaiotzarik.

EZKONDUTAKOAK

- Ez dago erregistratutako ezkontzarik.

HILDAKOAK

- Ventura Gonzalez Caballero, Orion, apirilaren 18an, 57 urte.
- Juana Iruretagoiena Izeta, Aian, apirilaren 18an, 91 urte.
- Milagros Alberdi Silveti, Orion, apirilaren 9an, 92 urte.
- Santiago Ibirriaga Iturain, Orion, apirilaren 8an, 87 urte.
- Jose Luis vivas Barriaga, Orion, martxoaren 30ean, 51 urte.
- Bittori Usatorre Errasti, Orion, martxoaren 28an, 94 urte.
- M^a Isabel Luluaga Elizondo, Orion, martxoaren 26an, 65 urte.
- Manuel Lertxundi Lertxundi, Orion, martxoaren 26an, 97 urte.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria Karkaran jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:

943 83 15 27

APIRILEKO KRONIKA



12. edizioa izango du aurten Landare Berezien Azokak. KARKARA



Jendea erruz biltzen da Aian txakolinaren aitzakian. KARKARA



2013an egin zituzten Bungalowak, argazkian horietariko bat. KARKARA

Erretakotik goxora

Mendi lasterketarekin amaitu zen martxoa, eta Igeldotik Oriora hogeita bost hektarea erre zituen sutearekin. Buruhaustearekin amaitu bata, eta buruhausteekin jarraitu bestea. Apirilean ere mendiak eman ditu aferak, Benta bidea dela-eta. Alderdiek borrokan dihardute, ados jarri ezinik.

Ados, kultura aldetik, Laburbira Oriora ekartzearekin. Euskal zinema laburra sustatzeko, Iñaki Beraetxe, Goenkaleko Mikel *Tximas* etorri zen kultur etxera. Telebistatik Oriora, eta Oriotik Telebistara. Iker Gurrutzagak *Hizkamizka* saioan sei egun egin zituen; hirurogei saio zeramatzan aurkaria kaleratu eta zaku bete diru itzuli zen.

Hizkamizketatik Tribuaren Berbetara, eta telebista kamerak ere Oriora itzuli ziren. Kike Amonarrizek euskara hogeita bost urte barru nola izango den aztertzerak ekarri zituen Maria Maestra haur eskolara. Etorkizunean guraso izango direnak eredu hartuta, iraganean haur izan zirenengan – egungo gurasoengan – euskararen erabilera hobetzeko helburuarekin *Aita, ama... kontu bat dut zuei esateko!* programa ere jarri du martxan Orioko Udalak.

Ume nahiz guraso bildu ziren kiroldogean, Benito Lertxundiren kontzertuan. KARKARAK eginiko elkarrizketan esan zuen bere kantaldiak belaunaldi ezberdinen topaleku direla. Aiako plaza, aldiz, txakolin-zaleen topaleku izan zen Txakolin Egunean. Getariako Txakolinaren Jatorrizko Izendapena duten hamahiru upategik beren edaria eskaini zuten, burruntzian erretako txahalari zintzurrean behera bultzatzen laguntzeko. Opor giroa sumatzen zen eguzkipean.

Aste santuko oporretan batzuk kanpora joan eta besteak herria zaintzen geratu dira; izango da, baita, oporrak lanean pasako zituenik ere. Lan bila dabilenarentzat, udako lanpostuetako deialdiak egin zituzten udalek, urtero bezala. Brigadako langile bat eta udaleku irekietako begiraleak behar zituzten Aian; Orion, garbitzaile, zaindari eta txu-txu trenaren gidariak.

Datozenak datozela, trenak, hondartzaraino iritsi aurretik, utz gaitzala kanpinean. Bungalow berriak ikusi eta Kalakan taldearen musikaz gozatzeko, aire zabalean, udaren usaina datorrela sumatuz. Usainak usain, lehenbizi udaberrikoetz gozatzea hoberena, Aiako Landare Azokan, apirila agurtzeko.

Egin al duzu errenta aitortpena? Euskaraz ala gazteleraz?



“Eginda bidaltzen didate, eta paperak gazteleraz daude”

Eginda bidaltzen didate. Hala ere aholkularitzakoak esan dit atzera botatzeko, berak sartu zuen kontu bat ez dela agertzen, gizar-te segurantzako zerbait.

Hobekuntza txiki bat nabaritu dut. Jubilatuta nago, beraz, pentsio berdina kobratu dut. Hala ere aurtengo aitortpenean gehiago kobratzea tokatu zait. Non dagoen diferentzia, egia esan, ez dakit. Ez naiz begiratzen jarri.

Aitortpena eginda bidaltzen didate, eta paper guztiak gazteleraz daude. Nik hala nahiago dut, gazteleraz errazago egiten dudalako. Kanean euskara hitz egitea ez zait kostatzen baina bai idatzizko kontuetan.

Fermin Alonso Gomez

Jubilatua



“Euskaraz egiten didate aitortpena aholkularitzan”

Negozio bat daukadanez eta paper asko maneiatu behar ditudanez, ez naiz arduratzen ni neroni errenta aitortpenaz; gestoria batek egiten dit, enkarguz. Horrenbestez, beste batzuen esku uzten dudanez ardura, ez daukat informazio askorik.

Hori bai, dakidana da gestoriakoa euskaraz hobeto defenditzen dela eta horregatik euskaraz egiten duela errenta-aitortpena. Bera euskalduna da, hortaz, naturalki ateratzen zaio. Bestalde, normalean, diru-laguntzarik ez dut ematen: ez elizari, ez laguntza sozialik... Ez dut horrelako ekarpenik egiten.

Jose Manuel Gozategi Korta

Fruta-saltzailea



“Kasu honetan, ez diot hizkuntzari erreparatzen”

Hipotekak eta seme-alabak izanenez gero, asko begiratu beharreko zerbait da. Denborarekin, hipotekarik ez duzunean eta umeak autonomia daukatenean asko sinplifikatzen da guztia. Bakoitzaren egoeraren arabera da errentak duen pisua.

Nik, bizitzako etapa honetan oso erraza daukat eta ondorioz ez daukat inolako kezkarik. Ez diot garrantzia berezirik ematen, haiek bidalitakoa onartzen dut eta listo. Hortaz, ez dakit euskaraz ala gaztelaniaz egiten dudana, ez diot horri erreparatu. Automatikoki egiten didatenez ez diot buelta gehiegi rik ematen.

Argitxu Manzisidor Perez

Zerbitzaria

azkue 
karrozeria

Ubegun industrialdea, 7
Tf/fax: 943 83 51 86

20800 Aia-Orio
Carroceriasazkue@hotmail.com

“Aiako herritarren aniztasunera egokitu beharra daukagu”

Aritz Arruti

Aiako Bilduko zerrenda-burua

Udaleko atea herritarrei ireki nahi dizkio Aritz Arrutik, herritik eta herritarrentzat egin nahi baitu politika. Aiarren parte hartzea da Arrutik ordezkatzeko duen Bildurentzat gako eta herritarrak elkarrekin jarduteko bidea azpimarratu nahi dute, horretara bideratu indarra eta gogoia, herriak nahi duen Aia osatzeko.

TESTUA: OLATZ ARTOLA ARGAZKIAK: KARKARA

2011an sortu zuten Aian Bildu koalizioa. Hauteskundeetara aurkeztu eta boto kopuruei erreparatuta paretsu ibili arren, EAJk lortu zuen alkatetza. 2015ean berriz bozkatu beharko dute herritarrak. Herriaren partaidetza lau urtez behin emandako boto soilean geratzerik ez du nahi Aritz Arrutik, udala egunero baita herriarena.

Zergatik politikari?

Politika dena da; dena: euskaldun batek gaztelaniazko egunkari bat erostea, egunkari hori ikuspegi kritiko batetik irakurriko ez duela erabakitzea, baita politikaz hitz egingo ez duela aukeratzea ere. Arlo ezberdinetan dago politika, eta gu, udalaren barruan politika egitera animatu ginen. Momentu gazi-gozaok bizi arren, ilusioekin emandako pausoa da, benetan herriari zenbait ekarpen egin geniezazkiola uste genuelako.

Ilusio hori zapuztu egin al zen hauteskundeetako emaitzek erakutsitakoarekin?

Gure helburua ez da udalean gobernatzea, herritarrei gure ikuspuntua zabaldu eta herriari gure ukitua ematea baizik. Emaitzekin harrituta geratu ginen, Bilduk lortutako bozka kopurua oso gertu baitzegoen EAJk eskuratutakoengandik.

Soberanistak eta ezkertiarak elkarrekin joateko beharra sentitu zuten euskaldunek; koalizio izaerak indarra eman zion eta herritarren erantzun onean islatzen da hori.

Herritarrek ere pentsatzen zuten, beraz, legealdi berrian herriari zer eskainia bazenutela?

Udalak irekia izan behar du, eta itxita zegoen –eta dago–. Kallean ez da udalak hartzen dituen erabakien inguruan informazioz zabaltzen; ezta galdetzen ere. Hutsune hori ikusten genuen, eta hori aldatzeko erraztasunak Udalak berak eman behar dituelakoan gaude.

Herritarrek lau urtez herria kudeatzeko zeregina ematen diote udal gobernuari. Urte horietan zenbait proiekturen ga-

ERREPORTAJEA



ELKARRIZKETA

rapenean erabakitzeke eta iritzia emateko aukera izan behar dute, beti ere herriarekin batera gauzatu daitezten.

Herritarrak ikuspegi kritikoa eta iritzia plazaratzeko aukera izan behar ditu; horren arabera ikasiko du, hasierako ezagutzak aldatu beharko lituzkeen ala ez erabakiz. Horretan gabilta, baina oposizioan gaudenez eta gehiengoak bali duenez, pareta baten aurka jotzen dugu uneoro.

Mugatuta sentitzen al zarete?

Oposizioan egotearen joko arauak bagenekizkien eta onartu egin behar ditugu. Bozka kopuruak mugatzen gaitu, EAJk baino zinegotzi bat gutxiago baitaukagu. Hortaz, udal gobernuak erabakitzen badu gure proposamenak ez dituela aurrera eramango, bidea itxita geratzen zaigu. Borondatea ere muga da, horren esku geratzen baita gure proposamenek aurrera egingo duten ala ez. Iritzia eman dezakegu, baina gure ideiak praktikara eramateko arazo latzak dauzkagu.

Hurrengo hauteskundeetan Igor Iturainek politika utzi behar omen du. Alkate honek duen indarra kontuan hartuta, haren ordezkari izateko aukerak ikusten al dituzu?

Jendeak pertsonari, eta ez alderdiari, ematen dio botoa askotan, baina zinegotzi talde bat gara eta talde bezala funtzionatu behar dugu. Ez da guztia pertsona baten ardurapean utzi behar nahiz eta argazkirako bera erabiliko duten. Proiektuaren ordezkari bat egon arren, oinarrian jende gehiago dago.

Oposizioan zaudenetik, zer jaso duzu aiarrengandik?

Hartu emanak herritarrengandik gertuago sentiarazi nau, eta horrek, errealitate ezberdinak ikustera eramana nau. Aia oso handia da, auzo askokoa, eta ondorioz, errealitate ezberdinak daude. Guztiak dira herritarrak baina ikuspuntu eta behar ezberdinak dituzte. Gure lana Aiako aniztasunera, baikoitzaren beharretara, egokitu beharra daukagu, hortaz, jorak desberdinak baitira testuinguruaren arabera.

Danbolin musika eskola izan daiteke adibide bat.

Santio Errekako eta Olaskoegiako aiarrak dira galtzen atera direnak. Udalak irtenbideak eman beharko lituzke. Orioko udalarekin hitzarmena bilatu beharko luke, eta bide batez, aiarrei musika zerbitzu osoago bat eman, kiroldegiekin egin bezala. Zergatik batean bai eta bestean ez?

Momentuaren arabera erabaki ezberdinak hartzen ditu Aiako Udalak; koherentzia falta dauka. Herritarrek sufritzen dute ondorioz, eta izatez, herritarrentzat egin beharko luke politika. Baina herriaren aldeko politika egin ordez alderdi politiko baten aldeko politika egin du.

Mataderiarekin ere desadostasunak izan dituzue, ezta?

Udal gobernuak hiltokia saltzea erabaki zuen. Ez da erosleperfila betetzen duenik etorri, hortaz, %15 merkatzea proposatu du. Udalaren ondarea den mataderia saltzea haien erabakia izan da baina ondorioak, beste behin ere, herriak jasango ditu. Besteak beste, merkeago saltzean ez dauzkagu aurreikusitako irabaziak. Guk ez genuke hiltegia salduko, bestelako erabilera emango genioke. Haurtzaindegia hartzeko toki egokia iruditzen zaigu, adibidez.

Udalaren etxe-aurreak espainiar banderarentzat bezala?

Bandera ipintzearena inposizio bat da. Udal bezala ez jartzeak ondorioak edukiko lituzke: alkatea gaitasungabetzea eta



“Jendeak pertsonari, eta ez alderdiari, ematen dio botoa askotan, baina zinegotzi talde bat gara eta talde bezala funtzionatu behar dugu”



udalarentzako isuna, besteak beste. Bandera jartzeak zer nolako ondorioak izango lituzkeen baloratu da; alegia, herriari egunerokotasunean zertan eragingo liokeen. Balantza horretan pisu gehiago zerk daukan aztertuta, gogoz kontra, inposizioari kasu egitea erabaki dugu.

Herriari ahotsa ematen ahalegindu gara. Hasiera batean udal gisa proposamenak jasotzeko ideia mahai gainean jarri genuen, baina EAJk ez zuten beharrik ikusi, bere garaian jaso zirela-eta. Hortaz, haiek baloratuko dira.

Parte hartzea etengabe aipatzen duzue.

Parte hartzearekin lortuko da benetan herriak nahi duena. Gure ideien inguruko proiektu bat aurkez dezakegu, baina herritarren nahietara egokituko den ala ez ezin jakin dezakegu. Beraz, aiarrek beren beharrak zein diren esatea gustatuko litzaiguke.

Herritik eta herriarentzat egin nahi duzue politika, hortaz.

Herritarren desioaren eta beharraren arabera erabakiak hartu behar dira. Adibide bat jartzearen, udal hobarien kasuan herritarren egoera kontuan hartzea ezinbestekoa iruditzen zaigu. Familiako ume kopuruaren eta langabeen arabera egiten dira hobariak, baina egun lana edukitzeak ez du bermatzen pobrezia eza. Gure ustetan herritarren errenta hartu behar da kontuan: asko daukanak gutxiago daukanak baino gehiago ordain dezala!

Hondakinen gaia ere bor-bor dabil, ezta?

Beste hainbat herrietako emaitzen arabera, birziklapen tasa ez da %40tik gora igaroko. Bere garaian bosgarren edukion-

tzia jarri zen, baina bilketa sistema ez da aldatu. EAJren helburua errausketa da; ez luke horrek izan behar. Ahalik eta zabor gutxien sortzeak izan behar luke gure xedea. Eta ondorio kaltegarri gutxiago izan ditzagun, ondo birziklatu beharko genuke. Modu horretara %70 eta %80 bitarteko birziklatze-tasa lortuko genuke.

Nahiz eta EAJk aurkakoa esan, ondorio ekonomiko hobek izango lituzke atez atekoak, ahaztu gabe osasunarentzat eta ingurumenarentzat ere hobetua dela. Horrez gain, auzo konposta egingo bagenu, bilketa sistema berria ordaintzeko sosa izango genituzke, zaborra zena lehengai bihurtu eta salduta. Gainera, Aiak ingurune ezin hobea dauka auzo konposterako.

EAJ, ordea, tratamendua eta bilketa desberdindu egiten ditu herritarrak nahasteko helburuarekin. Gaur egungo ereduarekin alderatuz gero, bilketa garestiagoa izan daitekeen arren, tratamendua aldatu egiten da eta atez atekoarekin onurak jasoko genituzke. Erretzearekin, ordea, ze irabazi lortuko genituzke? Gastu handia eta osasunean kalteak. Estetika eta usain kontuak erabiltzen dituzte atez atekoaren kontrako argudio gisa, baina zenbait herritan horrela bizitzeko gai badira –eta liskarrik gabe, gainera–, gu zergatik ez?

Hemen liskarrik, aldiz, asko.

Udalak ez entzunarena egiten du. Zero zaborrek mozio bat sartu zuen udalean, zeina erregistratu egin zen. Alkateak, ordea, ez zuen bilkurako gai zerrendan sartu. Azalpenik eta erantzunik eman gabe itzalean, ezkutuan, utzi zuen gaia. Hor agerian geratzen da alkatearen borondatea. Ados egon ez arren plenora eraman behar zuen gaia eta bertan erabaki.

Zuentzat oso garrantzitsua da zaborraren kontua.

Gure lehenasunezko gaiak hezkuntza eta zaborra dira. Osasuna eta hezkuntza derrigor babestu beharko lirartekeen alorrrak dira. Zaborrak, bestalde, eragin zuzen-zuzena du gure ongizatean.

Hezkuntzaren egoera egun zein da?

Eskola handitzearen proiektua hor dago, baina Hezkuntza Sailak ez du diru laguntzarik ematen. Krisiak, hortaz, eragin zuzena dauka. Herrian eskolak lekua izatea bermatu nahi dugu eta baldintza duin batzuk izatea; beti ere kontuan hartuta zein den gure biztanleria eta eskolara joateko adina duten haurren zenbatekoa.

Legealdia aurrera doan heinean, zuen erabakiak gauzatu daitezkeen udalean egoteko beharra ikusten duzue?

Legegiltzaldian sartu ginenean sailen banaketa egin zen eta EAJk guri zazpitik bi kudeatzea zegokigula erabaki zuen. Botoen kopurua ikusita, gutxienez hiru hartu behar genituelakoan geunden gu.

Administrari kontseiluan lau kidek egon behar zutela erabaki zuten bere garaian, baina hauteskundetako emaitzak ikusita estatutuak aldatu egin zituzten: bostera igo zuten, gure ahotsa kendu eta EAJk kontrola izateko. Hor garbi ikusten da haien jarrera: nahiago dute boterea eduki herriaren aukeraketari kasu egin baino.

Gure ustez jarrera aldaketa ezinbestekoa da gure proiektuak aurrera eramateko. Eta borondatea behar da horretarako. Ikusi egin behar herriak norengan duen konfiantza.



Miriam Garcia

Belarjalearen penitentzia



stirala! Aste luze baten ostean iritsi da behin-go. Eta ez dago asteburuari hasiera emateko modu hoberik pintxo potera ateratzea baino. Lanetik irten, etxetik pasatu derrigorrezko betiko gauzetarako, pixka bat atondu eta

19:00etarako Arkaitzen geratu gara. Has dezagun zirkuitoa!

Tabernara sartu eta haragi edo arrainik gabeko zein aukera izango dudan aztertzen dut: patata tortila. Beno, ongi da. Goazen hurrengora; Antillan txanpiak ditut, saltsan. Primeran! Bi pintxo desberdin jatan ditut orain arte!

Arazoa hemendik aurrera dator. Kolon-txikin, patata tortila. Aterpen, patata tortila. Salatxon, patata tortila. Goizekon, patata tortila. Edonon, patata tortila. Ene! Tortila aurpegia geratuko zait azkenean!

Beti berdin gabiltza *bejetailiyok*. Gure elikaduratik hildako animaliak ezabatzea erabaki dugunok ez dugu aukera askorik etxetik kanpo jaten dugunean. Beti bokatak, plater kon-

binatuak eta abar gure dietara moldatzen. *Ba duzue haragi edo arrainik ez duen zer bait?* galdetzen. Barregarria, askotan, erantzuna: *bai, honek gazta, piperra eta urdaiazpiko ego-sia ditu*. Hara! Noiz utzi dio txerriaren hankatik datorren jaki batek haragi izateari?

Nire aukera dela esango didate -esaten didate askok, eta izorratzeko. Niretzako, ordea, ez da aukera, betebeharra baizik. Ugaztun eta hegaztiak jaiotzatik ia mugitu ezinik eduki eta modu krudelean hiltzeko gi-

zentzen dituen haragi industria masiboan eta mugak errespetatu gabe itsasoak husten dituen neurri gabeko arrantzan parte hartu nahi ez dudalako. Eta osasuna... hori beste kontu bat da, hurrengoan sakonduko dudana.

Gaurkoan, ez bejetarianoengatik bakarrik, intolerantziak, alergiak eta jakiekin loturiko gaixotasunak dituztenengatik ere bai, aldarri batekin natorkizue, pintxo pote anitz eta askotariko baten alde!

Tabernara sartu eta haragi edo arrainik gabeko zein aukera izango dudan aztertzen dut: patata tortila. Edonon, patata tortila. Ene! Tortila aurpegia geratuko zait azkenean!



Eli Urdangarin

Jakitea ez da nahikoa

Lotsak eta erreparoa alde batera utziz galarazi egin behar dugu euskara zerrenda beltz horretan agertzea. Ez zaigu euskarririk falta, ezta bideratuko gaituen argirik ere.

at munduan egoteko... norbait izan behar lehenik, eta norbait izan behar hori beti dirua edo boterea dutenekin erlazonatzen dugu. Horiek bakarrik al dute ba mundu honetan egoteko eskubidea?

Urrutira joan gabe, gertu xamar begiratzen jarrita, aberatsenak gu geu garela pentsatu ohi dut. Gu? ariko zarete galdetzen... zergatik ez ba! -*Dun* atzizkiak duena esan nahi du, diru edo boterea ez dugula argi dago, baina jarri pentsatzen piska batean. Badugu zerbait denengandik desberdintzen gaituena, munduan bakarrak egiten gaituena. Hori ez al da nahikoa norbait izateko? Ba al dago euskararen jabe izatea baino altxor hobeagorik?

Ondarea ez dira bakarrik monumentuak eta baliozko gauzak. Txikiak gara, eta txikiak izango gara etorkizunean, baina bizirik irauteko eskubidea daukagu, txikitasunean handiak baikara. Hori bai, ezin dugu besoak zeharkatuta esperoan egon, zer pasako denaren zain.

Hizkuntzak desagertzeko arriskua mundu osoan egon arren gure hizkuntzak debekuak, mespretxuak, gerra zibila, eta frankismoa jasan behar izan ditu. Gure arbasoek, ahal zuten moduan, euskarari eutsi egin izan ohi diote beti. Erresistitza izan da denon patua, ez etsitzea, gureari eustea.

Aiton-amonen belaunaldiak bakarrik hitz egiten du; haiek, euren jokabidearekin, erakutsi digute lehialak izan gaitezen. Lotsak eta erreparoa alde batera utziz galarazi egin behar dugu euskara zerrenda beltz horretan agertzea. Ez zaigu euskarririk falta, ezta bideratuko gaituen argirik ere, norabidea argi daukagu eta.

Egoera ahulean dago euskara, hortaz, jarrai dezagun gurean eta ireki ditzagun gure etxeetako leihoak eta ateak, ez dezagun gure etxeke sua amatatzen utzi, ez dadin eten katea, euria hodeietara itzultzen den moduan.

Beti bezala, herriak du erabakia. Iragana, oraina eta geroa. Horrexegatik komeni da lau haizeetara barreiatzea euskararen geroa, gure eskuetan baitago; gure gogoetan, gure bihotzetan...

Hizkuntza batek herri baten oroimena, sentimenduak, ohiturak eta historia gordetzen ditu bere baitan. Jakitea ez da nahikoa, erabili ere egin behar da. Izan ere, zer da hizkuntza bat hiztunik gabe? Gure hizkuntza, gure ohiturak, gure kultura... hizkuntza bat galtzen denean herri bat galtzen da.

MIRANDA
AVIONES EMBALAJE

Iraketa, oro, lepo, zikatera...
 beha dien arrotzak
 eringo ditugu

Utzieta batea. T. 900 43 32 70. ZARAITZ

UTZIAR
 kirolak

Tel. 943 83 31 03

Kivikidatuta - Ume arropa

argine

www.lasoriel.com/argine
 Tel. 943 13 48 89

25eko DESKONTUA FAMILIA
 UGARIEN TXARTELAREKIN

SU KIA
GRUPA SUEKIA

Oharri eta gero... hartz KORA eta TOP!!!

- OLASKO ERREAK ERAMATEKO
- EOLNEKO MENJA
- EOLNARIK
- OUIA

Tel. 943 83 32 70
 ENHANCEROS DE S. 2002/8

Errioari begira... borrokan jarraitu behar



Eneritz Odriozola



Arturo Elosegui

Arturo, irudipena badut ingurumen arloan aurrerapausoak eman ditugula. Baina pauso horiek hain direla txikiak, ezen, aurrean ditugun mehatxu erraldoien aurrean ezerezean geratzen direla egingako ahalegin guztiak. Izan ere, ekonomiaren erraldoi handiaren hanka luzeen ondoan, gutxi baitugu egiteko ingurumen alorreko ipotx hanka motzok.

Batzuetan, ordea, badakit egingako lanak merezi izan duela. Kontzientziazioan lorpen txikiak izan ditugula. Baina, oinarrian, kontzientziazioaren zera hori guztia bilkina ez al da? Muinean ezer lortu al dugu? Esaterako, Oriaren osasunari begiratu besterik ez dago, hala?

“Esperantza izan nahi dut eta pentsatu nahi dut, ondoreneko belaunaldiak gu baino zentzudunagoak egingo ditugula. Eta udaletxeko balkoiko birziklatze tasak bezala, gure ekosistemen osasunak ere abiadura berean egingo duela gora”

Era guztietara, esperantza izan nahi dut eta pentsatu nahi dut, ondoreneko belaunaldiak gu baino zentzudunagoak egingo ditugula. Eta udaletxeko balkoiko birziklatze tasak bezala, gure ekosistemen osasunak ere abiadura berean egingo duela gora.

Eta, hau Oriotik begiratuta. Eta Oriaren itsasadarraz ari naizela. Hemendik kanpo gauzak aldatu direla iruditzen al zaizu, Arturo?

Az pentsa, Eneritz, nire sentsazioa oso desberdina denik. Ingurumen-kontu batzuetan asko aurreratu dugu, Oria ibaia lekuko. Ez duzu gogoratuko garai batean zuen kiratsa, zeraman aparra, baina niri ez zait ahaztu. Eta oraindik garbi-garbi ez dagoen arren, izokinak ere itzuli dira. Baina bitartean, zenbat ibar estali ditugu porlanez?

“Taz mundu osoko aditu-talde bat bildu genuen, ibaien kontserbazioaz eztabaidatzeko. Azken ondorioa ez zen erriari begira atera dezakezunaz oso desberdina: zenbait puntutan aurrera goazen arren, balantze orokorra txarra da, eta munduko biodibertsitatea gainbehera doa”

Badakizu lan-kontuengatik dexente bidaiatzea egokitu zaidala. Iaz mundu osoko aditu-talde bat bildu genuen, ibaien kontserbazioaz eztabaidatzeko. Azken ondorioa ez zen erriari begira atera dezakezunaz oso desberdina: zenbait puntutan aurrera goazen arren, balantze orokorra txarra da, eta munduko biodibertsitatea gainbehera doa.

Eta hala ere, Herrikoek bezala, borrokan jarraitzea erabaki dugu, beste inork ez baitu gure lana eginen. Zuk bezala, Eneritz, ondorengoak ditugu kezka, utziko diegun ondarea, batez ere eskubide sozialak eta ingurumena, haiek horren arabera epaituko baikaituzte.

Badugu zer egin!



“Pausoz pauso guztion gustukoa den kantua egitea lortu dugu”

Uhats eta Giranice taldea

Erria txikota! abestiaren egileetako batzuk

Kilometroak elkarlanean antolatzen den festa izaki, abestia ere horrela egin dute. Olatz Zugastiren gidaritzapean, berak sortutako hitzei ahotza eta musika jartzen aritu dira Uhats eta Giranice taldeak.

ELKARRIZKETA

Íñaki Lizarralde, Julen Alonso, Intza Unanue, Iker Urdangarin eta Mirene Elizondo. Uhats taldeko Eneritz Aulestia falta da argazkian. KARKARA

OLATZ ARTOLA

Orratza eta haria hartu, eta arrantza girora gerturatu nahian hasi zen Olatz Zugasti saregileen arteko elkarrizketak josten. Bere hitzei doinua jarri die Julen Alonsok eta Giranice taldeak aire berriekin freskatu du. Uhats taldeak ahotsa jarri du, eta honela, elkarlanean, osatu dute Kilometroetako sarea.

Olatz, patroilanak egiteko eskatu zizuten?

Olatz Zugasti: Nire eskutik etorri zen proposamena. Urteak dira Uhats taldea –hasieran Olaxka izenekoa– sortu zela. Kilometroak gure herrian izango dela ikusita polita iruditu zitzaigun guk zerbait egitea.

Julen Alonso: Ez nuen espero Kilometroetako kanta egitera iritsiko ginenik Uhats taldearekin. Ikastolan ikasitakoak gara, taldea ere Ikastolan sortua da, eta kanta sortzea aukera ezin hobea iruditu zaigu.

O. Zugasti: Gainera, aukera ona iruditu zitzaidan Euskal Herrian oihartzuna izateko. Urrats asko eman ditu taldeak eta pauso bat aurrera joateko garaia zela uste nuen.

Uhats taldea, ordea, ahotsetan oinarritzen da.

O. Zugasti: Kantagintza tailer batetik irten den taldea da, ondorioz, taldearen oinarria ahotsak dira. Baina lehenik musika edo doinua atera zen; ahotsak geroago jarri genizkion. Doinua Julenek egin zuen eta Giranicek beste aire batzuekin jantzi zuen.

Sorkuntzaren pisu handi bat zuri zor zaizu, hortaz, Julen.

J. Alonso: Doinua egin nuen, pozarren. Kilometroetarako izanik bizitasun puntua eduki behar zuela uste nuen, eta aldi

“Gure eztabaidak izan ditugu, baina hori ona da, bi aldeen interesa altua dela adierazten baitu. Zerbait polita egiteko gogoia zegoen”



berean, originala izan behar zuela; hortik etorri da arin-arin erritmoa.

Nolatan uztartu dituzue trikitia eta musika esperimentalak?

O. Zugasti: Genuen oinarri musikala ez zen nahikoa, horregatik jo nuen Giranice taldekoen atea. Begiz jota nituen.

Iñaki Gurrutxaga: Abestia dantzagarria zen, baina arin-arinak mugatu egiten zuen. Bizia izateaz gain denboran iraungo zuen kanta egin nahi genuen. Erritmoak gureganatu eta buelta asko emanda, bi estiloak ezkontzea lortu dugu; kantari beste ikutu bat eman diogu eta mezuari indarra.

Ekarpen aberatsa egin du, beraz, Giranice taldeak?

O. Zugasti: Giranice taldea kontziente zen kantua egina zegoela eta hori errespetatu egin behar zela. Halaber, kantua hainbat zati haiek bideratu dituzte eta haiek proposatutako hainbat ideiak abestiari on egiten dietelakoan nago, arnas-guneak eta indarguneak sartu baitituzte.

Musikaren ondoren ahotsa grabatu zenuten, ezta?

O. Zugasti: Kantagintza tailerretik irtendako taldea da Uhats, hortaz, haiek aritu dira ahotsa jartzten. Gaia ikusita, saregileen arteko komunikazioa, haien arteko elkarrizketak izango balira bezala planteatu genuen.

Talde lanean aritu dira, baina indibidualki nabarmentzeko aukera izan dute.

Diziplina bakoitza indibidualki landu duzue ala talde lana nabarmendu da?

I. Unanue: Taldean lan egitera ohituta gaude, eta orain ere dinamika horretan jardun gara. Kimika handia sortu da guz-

tion artean eta horrek lana errazten du.

I. Lizarralde: Hasieran ideia asko zeuden mahai gainean, ikuspuntu asko. Ezinezkoa zirudien guztia bideratzea, baina pausoz pauso guztion gustukoa den kantua egitea lortu dugu.

O. Zugasti: Gure eztabaidak izan ditugu, baina hori ona da, bi aldeen interes maila altua dela adierazten baitu. Zerbait polita egiteko gogoia zegoen.

Hitzak, hitanoz eta oriotarrez. Zergatik?

O. Zugasti: Arrantza giroko leloa izanik, arrantzari horri lotutako hizkera bizi eta oriotarra erabili dut. Gainera, ikastolan ere hika indartzeko lanean ari dira. Ondare linguistikoa errekupeartzeko eta transmititzeko helburua ere badu hizkera hori erabiltzeak.

Eta zergatik saregileen bitartez?

O. Zugasti: Kantarien gehiengoa emakumezkoa izanik, elkarlanaren ideia azaleratzen ahalegindu nintzen saregileen bitartez. Horretarako, saregileekin egon ginen, beraien hizkera jasotzeko.

Lelotik haratago doan esanahia ere badu kantak...

O. Zugasti: Ikastolen sorrera garaietan herri honek jakin zuen, zailtasunak zailtasun, azken helburua lehenesten eta indarrak batzen. Lerro-artearen ere hori ageri da, baina entzule bakoitzak bere interpretazioa egin dezake, irekia da oso.

Orain, guztia irudietan biltzea geratzen zaizue.

Maialen Sarasua ari da horretan, eta bideokliparen zati handiena egina dauka.

ARGAZKI ERREPORTAJEA**Usadioari helduz**

Ohitura zaharra da, 60 urte baino gehiago dituena. Andatza auzoko plazan egiten den erromeriaz ari gara. Urteak pasa badira ere, erromeria giroari bizirik eustea lortu dute Aristerrazun. Erromeria-zaleen biltoki bilakatu da ospea hartzean joan ahala, eta gaur egun, ia igandero antolatzen da festa. Euskal dantzen bueltan topaleku aparta.



Lagunartean bikotekidea bilatutako asko

Emakumeak beren artean hasten ziren dantzan; gizonak dantza eskatze-ra joaten ziren. Banaka saio apartak egiten bazituzten ere, nahiago izaten zuten helduta dantzatu. Jendea ezagutzeko toki aproposa izaten zen plaza eta senar-emazte izango ziren bikote asko eman izan ditu erromeriak.




ARGAZKI MUNDIALA


Aia, txakolin-zaleen topaleku goxo

1 000 kopa txakolin banatu ziren apirilaren 13ko Aiako XII. Txakolin egunean, alajaina! Txakolina agortu egin zitzaizen hainbati. Edariari laguntzeko burruntzian erretako bi txahal ere banatu ziren. Guztira, 450 kilo haragi eta 1.400 pintxo.

Getariako Txakolinaren Jatorrizko Izendapena duten 13 upategik –Arregik, Aizpuruak, Etxetxok, Gaintzak, Hiruztak, K5 Argiñanok, Kataidek, Mokoroak, Sagarminiak, Ulaciak, Upaingoak eta Zudugaraik– aurtengo txakolina eskaini zuten.

Harrera ezin hobea izan zuen XII. Txakolin egunak. Jende ugari bildu zen Aiako plazan eta giro onean dastatu ahal izan zuten 13 upategietako txakolina.

KARKARA
Apirileko sarituak
Sorkunde Lizaso

Gozategi fruta denda

Ramona Oleden

Dorronsoror janari-denda

30€

Arkupeko dendetan gastatzeko

zkue

Tf: 943 130 438
zkue




Jokin Uranga, Idoia Eraso eta Ahmed Labeid. KARKARA

“Elkarlanean ume hauen ametsa egi bihurtu dezakegu”

Jokin Uranga, Idoia Eraso eta Ahmed Labeid

GureraOrio elkarteak

Oporrak bakean egitasmoa sendotzeko eta hauspotzeko helburuarekin, GueraraOrio elkarteak sortu berri dute Orion. Egungo egoera zaila bada ere, irtenbide berriak bilatu nahi izan dituzte Saharako umeak Oriora ekartzeko.

OLATZARTOLA

50 gradu eta eguzkipean. Etxeetako teilak beroarekin puzten diren bitartean, irribarrea galdu gabe jolasean dabilta kalean umeak. Harri eta hauts artean baloiari ostikoak, jo eta jo, itsasoaren bestaldeko zelai berdean jokatzen dutela fikzioa dela pentsatuz. Itsasoa ere utopia dela uste dute.

Elkartearen xedea berotik ihes egin eta sinestezina zaien hori erakustea al da?

Jasangaitza da Saharako beroa udan. Bestalde, ikastetxean ikasten dutena gezurra dela uste dute, ez baitute inoiz euren begiekin ikusi. Ametsetakoa iruditzen zaiena errealitatea dela erakutsi nahi diegu, ikasten duten hori ulertu eta barnerratu dezaten. Kultura ezagutzea da gure xedea, altxor handia baita eta asko aberasten baitu pertsona. Bestalde, Saharara indarberrituta itzultzea nahi dugu, hortaz, elikadura eta osasuna zaintzen dizkiegu.

Behar hori asetzeko asmotan sortu duzue GueraraOrio?

Oporrak bakean egitasmoa bazen lehenagotik, baina azken urteetan indarra galtzen ari zenez birformulatzeko beharra ikusi genuen, oinarri sendo bat egitearen beharra. Behar horren erantzule da GueraraOrio Elkarteak.

Guerara herriarekin anaituta gaude, hortaz, gure desiorik handiena herri horretako umeak etortzea litzateke. Orain arte senidetasuna teoria besterik da izan; orain, praktikara eramanez nahi dugu.

Eraberritu ostean, nola kudeatuko duzue guztia?

Ez dugu alboratu familieek ostatu ematea, ohi bezala, baina beste aukera bat ere eskainiko dugu. Etxe berean hainbat haur biltzea da gure asmoa, horrela, ahalik eta ume gehien ekarri ditzakegu-eta Oriora. Ume horiek begiraleen zaintza izango lukete.

Horretarako laguntza behar al duzue?

Batez ere ekonomikoa, guztira 7.000 euro behar baititugu. Udala asko ari zaigu laguntzen. Askok eskertzen dugu beren prestutasuna, baina ez da nahikoa. Elkarlanean, kooperatuz, ume horien ametsa egi bihurtu dezakegu; errazagoa da bakoitzak bere ale apurra ipinita lortzea, guztia gutxi bartzuen esku geratzea baino. Hortaz, herritarren laguntza biziki eskertuko genuke, sahararrek hona etortzeko beharra baitaukat.

Beharrezkoa da Saharako umeentzat eta aberasgarria gu guztiontzat.

Haiek hona etortzea ikasketa prozesu bat da guretzat. Mundua begiratzeko betaurreko ezberdinak dituzte, eta kulturatrakaketa hori aberatsa da oso.

Kontzientzian ere eragiten du haien bisitak, ezta?

Haien bisita jasotakoan ohartzen gara nola bizi garen. Ero-sotasunaren gizartean bizi gara: nahi duguna daukagu, nahi dugunean. Gauzak baloratzen ikasten duzu.

PUBLIZITATEA

OREKA FISIOTERAPIA



**TENDINITISAK
LUMBALGIAK
ARTROSIA
ZEFALAK ...**

...
**MASAJE TERAPYUTIKOA
BENTOSAK, AKUPUNTURA
ESKUZKO TERAPIA
OSTEOPATIA**

943 13 35 37

ANTZINA KALEA, 11 BERRIA

bodegas ERRASTI, S. L.



Eskualderako banatzailea
Zudugarai, Getariako txakolina
Ilagares, ardo gorri nafarra
Bodegas Gallur: Señorio de Laurizale
Gailur eta Ardandegi
Arabar Errioxako ardoak

Eusko Gudar, 46 DRD • 943 83 00 86 / 83 00 52 • E-posta: bodegaserrasti@rnkale.net



**gizarte
kutxa**



mauka

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL: - 943.572083
FAX: - 943.571190
Lasenju@hucmail.es

INES ASEÑO
IBAI ONDO 13
20810 ORJO

Lizaso dekorazioa



**Tf:
943 83 07 84**

**Faxa:
943 24 87 15**

Eusko Gudari, 48

LUXARBE
igeltzeritza

Igeltzeritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merke

Tf/fax: 943 83 59 00

URAITZ
luminologia
paint & wallpaper

Enduz: Tf: 943 83 10 97

Ille apaindegia

MARIJO




Neska eta mutilentzat

**Eusko Gudari, 8-bajo
Tel. 943 13 47 29
Orio**

tel/fax: **943 89 00 69**

Bekoa kalea, 4. 20.810 ZARAUZ



ORBIDE

ITURGINTZA, BEROGINTZA
GASA, BAINU ERAKUSKETA



**ASADOR
XIXARIO**

Calvo Zubero, Edra, 2
Tel: 943 83 10 97

Portu

ERRETEGIA

Saint Erreka Auzoa, 26
943 89 44 66
20830 AIA-ORJO

Erreketan, berrikuntza, berrikuntza
Auzoan, berrikuntza, berrikuntza

LEUNDA OKINGEDIA



ORDUTEGIA

ENTZULEKETA - LARUNEGIA 7:00 - 20:30
ORDUETAN 7:00 - 13:30

Tel: 943 83 00 67

ERATZETA
PATXI OLIDEN
BERRITZETA



PATXI OLIDEN

Hemengo haragia.
Etxeko produktuak: tripaki, edoki,
bekara, txonzo, kroketak...

Eusko Gudari, 25. Tel. 943 83 00 10

Soldata handiagoak lortzeko

Produktibitatea behin eta berriz handitzen arituta, ailegatu da egun bat, non inork ezingo duen heldu jarritako lan kopurura. Hortaz, lehen baino lan dezente gehiago eginda, diru gutxiagorekin joan beharko du langileak etxera.

Bilboko *Global Forum Spain* topaketetan esandakoa gogora ekarriz, soldata handiagoak lortzeko modurik onena produktibitatea handitzea da.

Duela urte batzuk halaxe zen: jarritako lan kopurutik gora eginez gero, muga batekin hori ere kalitatea zela eta, horrenbesteko diru-saria egoten zen. Berriz (kendu egingo nuke) Kontrolatzailea etorri, bere lana egin, eta hainbeste gehiago egitea zegoela esan ondoren, lan berriari ekinez irabazten ateratzen ziren langilea zein enpresa-burua: bata diru polita etxeratzen zuen eta besteak fabrikatik lehengai gehiago merkatura ateratzea lortzen zuen.

Egun, ordea, kontrolatzailea agertzen denean eta produktibitatea igotzen duenean, ez da diru-saririk izaten, lehen ez bezala. Gaur egun, lehengo soldata mantentzeko, finkatutako lan kopuru berrira iritsi behar da nahitaez; osterantzean, epe bat igaro ondoren, egiten duen lan kopuruaren arabera, soldata murriztu egingo zaio langileari. Atera kontuak! Gainera, langileen gehiengoak jarritako lan kopuru berria aise gaindituko balu, laster litzateke berriro kontrolatzailea.

Hori dela eta, ez da denbora asko, hauxe aurpegiatu omen zion langile batek bere arduradunari: *Produktibitatea behin eta berriz handitzen ari zaretenez, ailegatu da egun bat, non inork ezingo duen heldu zuek jarritako lan kopurura. Hortaz, lehen baino lan dezente gehiago eginda, diru gutxiagorekin joan beharko da etxera. Hau marka!*

Beraz, horrela jarraituz gero, aberatsa gero eta aberatsago eta pobrea gero eta pobreago izango dira.



Eukeni Santamaria



FISIOTERAPIA
IKERKETA

IBAI ONDO 1, BEHE-OINA
TF.: 943 130 577

WWW.SINERGIA-WEB.COM
885 716 595

LESIOAK: BIHURDURAK, TENDINITISAK, ZAINTIRATUAR, KONTRAKTURAK, HANKA HANDITUAK, ARTROSIA, ALTERAZIO POSTURALAK, BIZKAR HEZURREKO ARAZDAR, ARNAS GAIXOTARUNAK HAUR ETA HELDUETAN, LESIO NEUROLOGIKOAK, HAURDUNALDIRAKO TRATAMENDU BEREZIAK, ERDITZE ONDORENGO ERREKUPERAZIOA

TRATAMENDUAK: TERAPIA MANUALA, OSTEOPATIA, RPG, MASAJEAK, DRAINATZE LINFATIKOA, ARNAS FISIOTERAPIA, KINESOTAPING-A, PILATES, ABDOMINALETAKO GIMNASIA HIPOPRESIBOA (GAH)

EZPALAK**OSPAKIZUNA**

KARKARA

Gero eta gehiago birziklatuz

Ia urte erdi da Orioko birziklatze-tasaren indizea udaletxeko balkoian zintzilik dagoela. Bizpahiru hilabetez 36 zenbakitik mugitu gabe egon ondoren, pixkanaka-pixkanaka, hil batetik bestera, goraka doa zorionez! Gero eta hondakin gehiago biltzen dugu gaika oriotarrok. Dena den, oraindik orain asko daukagu birziklatzeko eta poliki bada ere, bide horri leial jarraitu behar diogu.

HANDIK ETA HEMENDIK

“

Ocho apellidos vascos filma estreinatu ondoren suspertu bada ere, satorra bezala bizi da gure imaginarioaren lurpean, eta ziklikoki berpiztu egiten da gure euskal soro-txoan tontortxoak eta deskalabrotxoak utziz han-hemen.”

Anjel Lertxundi, Berria, 2014ko apirilaren 14a.

“Ikastolak herri honen lorpenik iraultzaileena dira. Horren lekuko izan gara azken mende erdi honetan. Ez dakit gaur zenbateraino baloratzen den, baina gure erronka guztien ispilu dira.”

Benito Lertxundi, Argia, 2014ko apirilaren 13a.

AIRDATZA modus
Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO

ANORGA TXIBI S.L.
KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak - beira bikoitza
- segurtasun beirak - dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak - barandak - kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Santi Barranco aseguru agentea

Aribaga 2, 2. sateketa ORIO

Tl. 618 581 308 - 659 218 221 e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com

SEGUROS BILBAO Grupo CATALANA COCENATEL

ardoak, urdalkiak, gaztak, kontserbak, janari prestatuak

etxeraino eramaten ditugu

943 83 09 84 aita lertxundi, 36 ORIO

XABIER URRETABIZKAIA

- Instalazio elektrikoak
- TDT antenak
- Atezain automatikoak

60 urte zerbitzua ematen

943 83 17 71

Aribaga, 31 20810 ORIO

LORETXU JATETXEA

Eusko Gudari, 18 Telf: 943 83 00 07

GARMENDIA

INMOBILIARIA - ANOKIARITZA - ASEGURUAK

Ibai Ondo, 1
Tel.: 943 834 466 - Fax: 943 132 941



1976tik dago Orion Osakidetzaren oinarriko zerbitzuak jasotzeko gunea. KARKARA

Itsas Etxea, lehorreko zentroa

Duela 38 urtetik dago Orion Osasun Zentroa. Lehen, Bikamiotan zegoen, Estropalari Kalean; eta 1985etik aurrera, hura txiki geratu zela-eta, **Itsas Etxean dago anbulatorioa.**



ERREPORTAJEA

TESTUA: MIRIAM GARCIA

ARGAZKIAK: KARKARA

Urrun geratu dira oriotarrak gaixotu eta Donostiara edo Zarautza ia erromes joan behar zuten garaiak. Eta are urrutiago ezinbestean medikua etxera bisitan etortzen zirenekoak. 1976. urtetik aurrera, osasun zentroa herrian bertan daukagu oriotarrok, bertatik bertara, Osakidetza berriaren oinarriko zerbitzuak jasotzeko gune bat.

Bikamiota ondoan, hasi zen Osakidetza lehen osasun zerbitzuak ematen, gaur egun albaitaritzak klinika dagoen tokian, bi mediku, erizain bat eta harrerako bi lagunekin. Edurne Esnal da hasiera hartatik bertan jarraitzen duen bakarra.

1985ean, hura txiki geratu eta osasun zaintzarako espazio gehiago behar zenez, gaur egungo lekura pasatu zuten ambulatorioa, Itsasoko Gizarte Institutuarentzako egin zen eta Espainiako Gobernuak Altxortegiarena den eraikinera; Itsas Etxera.

Bikamiotan kabituezina geneukan –dio Esnalek–. Itsasoko Gizarte Institutuak (IGI) bulegoa zuen gure aldamenean, eta nonbait erabaki zuten dena mugitu egin behar zela, horrela egin zuten gaur egungo eraikina.

Osasun zentroa lekuz aldatu zenean, pediatra bat gehitu zitzaion bertako medikuei, eta zaindari bat hasi zen lanean –harreran egoten zen hau ere, baina jada ez dago lanpostu hori–. 2005ean beste mediku bat sartu zen, beraz, hiru familia-mediku eta pediatra bat daude orain kontsultak egiten. Horiez gain, bi pertsonak harreran eta hiru erizainek egiten dute lan bertan.

Itxas Etxea

Herrian Itsas Etxe izenez ezagutzen den eraikinak erabilera ugari izan ditu beti. Taberna zegoen lehen, orain eguneko zentroa dagoen tokian; jubilatuentzako ile-apaindegia ere badago. Areto handi bat zegoen lehen, non gaztetxoentzako pelikulak jartzen zituzten. Handia zen areto hura, baina zati egin zuten gero; odol emaleak bertara joaten dira. IGiko bulegoa ere bazegoen eraikinean, baina aurten Getariara pasatu dute. Eta otsailean, Posta zerbitzua ere hartu zuen Itsas Etxeak bere baitan. Arrantzaleen kofradia ere bertan dago orain, kofradiako eraikinaren egoera txarra dela-eta. Baina oriotarrentzat eraikin hori beti izango da ambulatorioa.

Itsasoko Gizarte Institutuaren bulegoa eta ambulatorioa bertan jartzeko eraiki zuten Itsas Etxea. *Lehen arranpla zegoen hemen –dio Esnalek–; bete lana egin zuten, eta arranpla mugitu. Horren gainean eraiki zuten ambulatorioa.*

Kanpotik itxura berdinarekin jarraitzen duen arren, aldatetako izan ditu Itsas Etxeak, batez ere azken urteetan. 2004an behe tentsioko instalazioa berri zuten, eta medikuntza orokorreko eta pediatriako kontsultak handitzeko lanak egin ziren. Hurrengo urtean beste familia-mediku bat gehitu zen kontsultetan, bi izatetik hiru izatera pasatu ziren.

2005ean berogailu sistema berri zuten eraikinean, eta urte bat geroago harrera-lekua eta komunak berri, araudi-egokitzeko. Ateak eta leihoak aldatu zituzten 2007an, eta



Gaur egun bi lagunek egiten dute lan harreran. KARKARA



1985. urtean eraiki zen Itsas Etxea. KARKARA

“Herrian Itsas Etxea izenez ezagutzen den eraikinak erabilera ugari izan ditu beti”

“Ambulatorioan egiten den euskararen erabilera handia dela diote bertako langileek”



Hiru familia-mediku eta pediatra bat ditugu herrian. KARKARA

baita aldagela eta biltegiak berritu ere. Azkenik, 2009an teitua konpondu zuten, guztiz eraberritu.

Euskara anbulatorioan

Orioko anbulatorioan egiten den euskararen erabilera handia dela diote bertako langileek. Herritarrak, kontsultara edo ordua hartzera etortzen direnean, lehen hitza euskaraz egiten zaie, horretara ohituak daudelako.

Goretti Aranburu familia-medikuak hogeita bi urte darमतza anbulatorioan lanean, eta euskararen erabilera beti ona izan dela dio. *Askotan, kanpotik dagoen pertzepzioa da erabilera gehitzen ari dela, nik uste dut lehen asko hitz egiten zela eta orain baita.*

M^a Jose Egurbide erizainak dio ez duela uste jendeak euskaraz egin nahi ez duenik, *euskaraz dakien inork ez dit eskatu gazteleraz egiteko.*

Hala ere, euskararen erabilera zabal hau Orion eta horrelako herri txikietan bakarrik ematen dela diote langileek. *Beste nonbaitera joaten bazara, Ondarretako anbulatoriora adibidez, dena gaztelaniaz aurkituko duzu. Eta zer esanik ez ospitalean.*

Idatzizko lanak, berriz, gazteleraz egiten dituzte gehienetan. Batetik, terminologia aldetik errazago egiten zaielako – ikasketak gazteleraz egindakoak dira denak –, eta bestetik *ez dakigulako beste aldean dagoen pertsona, informea irakurriko duena, euskalduna den ala ez* –dio Aranburuk–.



Anbulatorioko langile guztiek dakite euskaraz. KARKARA



Eraikina Itsas Gizonen Institutoarentzat eraiki zuten berez. KARKARA

Osakidetzaren euskara plana

Badirudi Osakidetzak baduela asmoa laneko hizkuntza euskara izatea sustatzeko. *Ez bakarrik kanpora begira, baita langileen artean ere* –dio Goretti Aranburuk–. *Pasa den otsailean egitasmo bat martxan jarri zuten euskara sustatzeko, eta ez da hizkuntzaren alde egiten duen lehen plana.*

Osakidetzan euskararen erabilera normalizatzeko 67/2003 dekretuak zioen osasun zentroen eragin edo jardueraren eremuetako euskaldunen portzentajea %70ekoa baino handiagoa denean, Osakidetzak zerbitzu elebidunak eskaini behar dituela.

Horri jarraituz, anbulatorioko langileei –harrerakoak, erizainak, medikuak eta pediatra– epe bat eman zitzaien eskakizunak betetzeko. Horrela, euskaltegian ibili ziren euskara hobetzeko beharra zuten langileak.

ZENBAKIA

1985

Itsas Etxea inauguratu zen urtea. Urte horretako otsailaren 22an izan zen. Joakin Almunia, garaiko Espainiako Lan Ministroa, eta Ramon Jauregi, Espainiako Gobernuaren Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkari zena, izan ziren besteak beste, ekitaldian.

Kamikaze betaurrekoduna

Jendeak okulistarengana bisita pare bat egiteko beharra du. Hala ere, ez dakit lentillek edo betaurrekoek ikusi nahi eza konpontzen ote duten.



Garbiñe Manterola

Euriak itsutu egiten du betaurrekoduna. Itsutu betaurrekoak ez dituen ere. Euriak bai baitu pertsonari kartola magikoak janzteko abilidadea.

Sei minutu eskaseko bizikleta bideak lotzen dizkit bulegoa eta tren geltokia. Tarte hori nahikoa izan nuen autopistan kotxeko leihoan nola bizikletaren aurreko otarrean hiru pertsona harrapatzeko aurreko otsailaren 25ean. Bai, hiru esan dut. Ez bat eta ez bi. Hiru. Bata espaloi zabalean etorri zitzaidan korrika gainera, otarra okertzerainoko danbatekoa emanaz. Beste biek bidegorrira salto egin zidaten bat-batean. Betaurrekodun kamikaze honetik ikasi zuen zerbait egun horretan. Zerbait ikusi nahi badu, lentillak lagun behar dituela ekaitz egunetan.

Negu gogorra izan da aurtengoa bizikletariontzat. Ekaitz ugari. Euria eta haizea sobredosian. Susto txikiak eta handiak ekarri dizkit. Tartean aurreko lerroetan jasotako gertakaria, egia berdadera.

Susto handiagoa jaso nuen baina aurreko KARKARAREN alea irakurri nuenean. Jendeak okulistarengana bisita pare bat egiteko beharra du. Hala ere, ez dakit lentillek edo betaurrekoek ikusi nahi eza konpontzen ote duten.

Orain gutxi, bide pusketan txiki ia mikroskopiko bat konkistatu dugu herrian bi gurpil gainean ibiltzen garenak. Errioaren bazterrean egin duten bidegorriaz ari naiz. Nahikoa ez, baina bere txikitasunean guztiz beharrezkoa da. Jakin badakit obra hasi aurrekoa ez dela batere erraza izan, jendea kontra zela ere, jakin nuen, ulertu ez banuen ere. Nola

sartu buruan herritarron segurtasuna hobetuko duen proiektua ez dela beharrezkoa?

Ez dakizue zer nolako poza sentitu nuen nire laguna den hamar urteko neska koskorra Anibarko portuko bere etxetik herrira bizikleta gainean zetorrela ikusi nuenean. Bidea estreinatuta eta egun pare batetara izan zen. Behingoagatik ama eta kotxea auzoan utzi eta bera bakarrik, kontratan kotxeren bat azaltzeko inongo beldurrik gabe, bidali zuten etxekoek. Amaitutzat jo nuen behin eta berriz lotsarazten ninduen estampa. Banaka, binaka edo launaka umeak bizikletaz kontrako zentzuan eskolara bidean.

Harrigarria benetan jendeari lehentasunezkoa ez iruditzea egunero auzo hartako jendeak segurtasunez herrirako bidea egitea. Ulergaitza.

Zoriondu bidegorri zati txiki hori handi egin duzuen guzti. Hasiera polita izan da. Besteoi, ireki begiak, mesedez.



INDO
Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA



Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO



Jokin Zumeta

Konbinatzeko trikimailuak

Bada konbinazio bat begietako min izugarria egiten didana eta bata bestearen ondoan jartzen ez dudana: gorria eta horia. Aiako udaletxean zintzilik dauden trapuetako baten koloreak

Arma-irruaren aurrean nago, ze arropa jantziko dudan pentsatzen. Arropa mordo bat, arma-irru ia betea, baina ideia gutxi. Zer jantzi ezin jakin. Jantzteko kontuetan beti izan naiz baldar xamarra.

Neska-lagunak sarri esan ohi dit arropak nola konbinatu, urdina berdearekin ez, gorria morearekin ere ez, ezta arrosa-rekin ere. Zuria eta beltza edozein kolorearekin ongi geratzen dira, grisaren antzera... eta horrelakoak.

Gaizto gabeko ikasgaia dut arropa konbinatzearena. Behin baino gehiagotan jantzi izan dut laukidun arropa mar-radunarekin, eta jendeak abisatu bitartean ezta ohartu ere, eta abisatu didatenean axola ere ez. Aitortu behar dut ez dudala interes berezirik arropa konbinatzean, baina badira arreta gehiagoz zaintzen ditudan kontuak eta koloreak.

Izan ere, bada kolore konbinazio bat begietako min izugarria egin izan didana eta sekula bata bestearen ondoan jartzen ez dudana: gorria eta horia. Gaur egun Aiako udaletxean zintzilik dauden trapuetako baten koloreak. A ze begietako mina bandera hori Aian ikusteak! Gero urdina eta berdea gaizki gelditzen direla esango dute, alperrik!

Gainera, haizea ere aurka daukagula dirudi, haizeak jotzen duen bakoitzean Espainiako bandera nagusitzen baita besteen gainetik. Ikurrina, Aiakoa eta Europakoa itzalpean gelditzen dira, gordeta egongo balira bezala. Murphiren lege bat dirudi, ogi xigortua beti gurinaren aldera erortzen den bezala, haizeak jotzen duen bakoitzean bandera espainiarra nagusitzen baita. Lehen aurkari gutxi eta haizea bera ere kontra...

Ez dut ulertzen zergatik jarri behar dugun geurea ez den bandera. Geurea sentitzen ez dugun ikur bat ezin da eta geurea izan. Inork nahi ez eta jarri egin behar, gogoz kontra, behartuta. Demokrazia?

Gauzak horrela gutako bakoitzak pentsatu beharko genuke zer egin dezakegun bandera hori itzalean gelditu dadin, eta gurea sentitzen dugun ikurrina haizeak astindu dezan. Beraz, burua nekatzen gonbidatzen zaituztet.

Ah, azkenean, niki berdea galtza urdinekin jantzi dut, eta ez da horren gaizki gelditzen!



**IGLESIAS
SARRAILAGILEAK**

24 orduko zerbitzua

Javier Iglesias Fernández
637 723 308
iglesias@arrailagileak.es
BOBIO ORIO

- ATYAK IRKIZTARI OTZUGU
- SARRAILA-ZELINDRO ALDAROTAK
- ATYAK IKYKO MALDUNHTI ALDARHTA
- KOMUNITATEBHTZAKO ZERBITZUA

ITSASADARRA, S. L.

Jose Angel Iradi Udabe



aseguru artekaria
finka administratzailea
gestoria
empresa berriak sortzeko diru laguntzen kudeaketa

Tel 943 89 40 29 Fax 943 83 54 98 itsasadarra@itsasadarra.com
Iru. Ondo 4. behe. 20010 Orio

PUBLIZITATEA

libe
dietetika
elkarruza ardurkarietza

eusko gudariak, 35 - ORIO
(sareko telefonoak, kateak)

943 33 64 94 - 697 23 88 56
libegaindard@gmail.com

Alustiza Autobusak
Autobusak Bilanako S.L.

Autobus litera eta
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
Bidaiatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 23 93 / 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01 / 656 78 29 99

ITZALA
kartela jokatze
gizakia

tel. 943 83 12 59

MANTEROLA S/L
ESFERA ETA RETENTZIOKO
BALBULAK

Sartago auzoa - TE postaketa
Tel. 943 830 743
Fax. 943 134 834
E-mail: manterola@manterola.com
20110 ORIO - GIPUZKOA

Eferako balbulak
AENOR kalitate sartagorikoa

Nahikari

HAIR DENDA

ARRITZUE KALEA, 35
20100 - Orio
Tel. 943 23 96 30
www.nahikari.es

ODITZ

Arria nabateko nortabak
hasi eta ematen jarraitu

tel. 943 83 00 89

ZABALIKI
PROBATU
EZAZUI

PIZZERIA

KALETA

ARRANTZALE KALEA, 10
TELEFONOA: 943 24 89 46

LURDES
ARRANTZUEGIA

Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

elkaritegia

ANTILLA
juvelieria

Abeslari katea, 2 - Tel. 943 83 23 00

Joana Murgiondo
Aseguru-eragilea

ASEGURUAK

CCCI
ESTADIA, GARTELLA, GOROSTI Y CIA, S.A.

Abeslari, 4- 2. esk.
Tfnoa: 943 13 46 07

KOLON TXIKI
valer lurraren
jabetzia

Herrillo Enparatza, 4
ORIO
Tel. 943 83 00 44

Zarautz
Hileta Zerbitzuak

> Hilerrien kudeaketa
> Hileta zerbitzu orokorrak
> Zerbitzu iraunkorra

Harrespil
Hilerri Zerbitzuak

bai

Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxa: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net


OROIMENAREN KUTXA

1969/08/17, Carlos Hugo de Borbon, karlisten buru eta Espainiako erregegaia, oriotarrek in . EZEZAGUNA

Borboitarrek Oriora egindako bisitaldiak

Oroimenaren kutxa

Espainiako monarkiaren inguruko kortesanoek joera handia izan dute Euskal Herrirako; bereziki, Donostiarako. Bertan egindako egonaldien oroigarri daude Donostian, besteak beste, Maria Cristina hotela eta Victoria Eugenia antzokia, bi erregina borboitarren izena hartuta.

Donostian egonda, ez da harritzekoa inguruko herrietara ere iristea bisitan, herri horietan zerbait ospatzen zenean. Orioraino ere iritsi izan dira: Alfontso XIII.a eta haren emazte Victoria Eugenia bisitan izan ziren Orion 1925ean, Beatriz, Cristina, Gonzalo eta Jaime seme-alabekin. *Fackun tu zim* yatean etorritako familian Juan bakarrik falta zen, Espainiako oraingo erregearen aita zena. Badirudi Orioko plaza inauguratu zutela egun hartan. Moilan lehorreratuta, plaza bertan izan ziren ospakizunak.

1948an, Juan de Borbon –Juan Carlosen aita–, orduan Espainiako monarkiako erregegai zena, Francorekin elkartu zen Donostia eta Getaria arteko itsas eremuan, jeneralaren Azor yatean; Orioko kazetari batek dioenez, Orioko bokalearen parean. Egun hartan adostu omen zuten orduan 10 urte zituen Juan Carlosek Espainian estudiaturiko zuela. Donostian estudiatu zuen, hango jesuiten ikastetxean.

Garai hartan, borboitarren artean ere denak ez ziren Juan Carlosen aldekoak, denak ez zeuden ados Juan Carlos Espainiako errege izatearekin. Haietako bat zen Carlos Hugo de Borbon, Alderdi Karlistaren burua eta espainiar koroarako erregegaia. Gizon hura bisitan izan genuen Orion 1969ko abuztuaren 17an, nazioarteko estropaden bigarren edizioan, zortzikoan Orio, Oxford eta Cambridgeren kontra lehiatu zen egunean.

Carlos Hugoren bisitak arazo protokolario-politikoak sortzeko arriskua ekarri zuen. Estropadaren aurretik, inork

ezer ez zekiela, Orioko portuan barku bat sartu zen. Ontzian Carlos Hugo etorri zen; urtebete lehenago, 1968an, Francok familia osoarekin Espainiatik egotzitako gizona. Orion zela, herriko alkateak nahikoa lan izan zuen egoera hartan zer egin asmatzen. Ez zen aparteko ezer gertatu. Carlos Hugok estropada ikusi zuen moilako tribunatik eta sari-banaketan ere bertan izan zen. Carlos Hugok Oxforden ikasi zituen ekonomia-zientziak. Ez dakigu Oxford-en jarraitzaile moduan etorri ote zen edo Francori erronka politikoa jo nahi izan ote zion bisitaldiarekin.

Errege-erregina borboitarrek, oraintsu arte, hitz politikak eta opariak jaso izan dituzte bisitatu dituzten toki guztietan. Duela gutxi hasi zaizkie bestelakoak ere. Ez dakigu Orion orain arte ezer jaso ote duten etorri izan direnetan; baina 1995ean Sarasua anaiek, Jon eta Aitorrek, bigarren abizena Maritxalar dutela aintzat hartuta, bertso sorta osoa eskaini zioten borboitarren familian sartu berria zen Maritxalar primosegundoari, ezkontza-opari moduan. Hona hiru ale:

Sarasua da gure izen printzipala/ nork daki bigarrena Maritxalar dala?/ etzaigu egokitu suerte makala/ apellidu bereko pabo erreala.

Hi haiz elementua lehengusu lepo mehe/ Nafarroako kasta eta aitonseme/ Espainiako koroak ezkongai bi eme/ loterik ederrena heuret zat dek Jaime.

Napar batek burutu leike edozein lan/ edozein lagunekin eta edozelan/ muturtxoa sartu dek bapo Zarzuelan/ garbantzu faltarik ez hire kazuelan.

Sarasua-txolarratarrei lekukoa hartuta, orain herriko Urdangarin bati dagokio bertso sorta bat sortzea, Iñaki Urdangarinentzat. Gai gehiago izango du kontatu eta kantatzeko.

IÑAKI TURAIN


Benta bidea, arriskuan dagoen eremua



Benta bideko triskantza . ORIOKO UDALA

Uda eta udazken lehorraren ondoren, euria erraz bota zuen azaroan. Lurrak horrenbeste ur segidan hartu ezinda, luiziak izan ziren Orio eta Itxaspe eta herria eta Orioko Benta lotzen dituen bideetan.

Urtarrileko bigarren astean garbitu zuten Itxaspe baserri alboko bidea. Horrez gain, ezpondak sendotzeko lanak burutu ziren. Benta bidean, berriz, bi

lekutan egin zuen mendiak behera: Itzaiztik gora dagoen 180°ko kurbatik gertu; eta Itzaiz eta Aizperro baserrien arteko sakanean.

Arrisku ekonomikoa eta naturala

Benta bidea konpondu ahal izateko egoeraren eta irtenbideen berri jasoko lukeen proiektua enkargatu zuen Udalak segituan eta han jasotakoak bi arazo

nagusi mahaigaineratu zituen: lur mugimendu berriak egoteko arriskua eta konponketa gastuari aurre egin eza.

210.000 eurokolana

Lehenik eta behin, apirilaren azken astean, kaltetuta dagoen eremuan lur mugimenduak eragingo dira, gainazalean aske egon daitekeen lurra egonkortzeko. Itzaiz eta Aizperro arteko bideari dagokionez, berriz, maiatzean hasiko dira, mikropiloten bidez egonkortu behar baita mendia.

Lanak finantzatzeko Orioko Udaleko 2013ko altxortegitik geratzen dena eta Urkomek emandako diru-laguntza erabiliko dira, 190.000 eta 20.000 eurotakoak, hurrenez hurren. Apirileko udalbatzarrean soberakinetik ordaintzea adostu zuen Udal Gobernuak Orain eta Bilduren aldeko botoekin.

Bideforala izateko eskaera

Gaur egun Orioko Udalarari dagokio Benta bideko mantenua. Bide horren izaera, ordea, oriotarren erabilerakoa izateaz gain turistena ere badela irizten dio Udalak. Horrenbestez, Benta bidea Gipuzkoako Errepide Sarearen baitan sartzeko ahaleginetan dabil aspaldiam. 2013ko urrian egin zuen azken proposamena, baina oraingo ezetza eman du Aldundiak.

Bildu: zein dira lehentasunak?

210.000 euro balio ditu obrak eta diru-laguntzen bila aritu da alkatea. Aldundiaren zain, Urkomek 20.000 euro emango ditu. Falta dena urteko udal aurrekontutik onartzea proposatu du Bilduk, baina ludoteka lehenestu dute EAJk eta Orainek. EAJk ez du Benta bidea konpontzeko beste ordainketa alternatibarik mahai gainean jarri. Guretzat ezinbestekoa eta lehentasunezkoa denez, soberakinetik egitea onartu dugu, lanak azkar hasteko.

Orain: Ez-ohikoa eta ezustekoa

Euri asko egiten du gure herrian eta noiz-behinka etenik gabekoak izaten dira zaparradak. Udala ere etengabe ari da eskatzen bidearen eskumenak -konponketak barne- Gipuzkoako Foru Aldundiak jaso ditzala. Dena den, Bentako bideko luizia ez-ohiko eta ezusteko hondamendia izanik, ez du aurrekontu orokorretan eragin behar eta egokiena, behintzat, gerrakinetik -soberakinetik edo *remanente-tik*- ordaintzea da.

EAJ: Kendu eta jarri

Apirilean erabakita, soberakinaren 190.000 euro Benta bidea konpontzeko izango dira. Benta bidea konpondu egin behar da, hori ez dugu inoiz zalantzan jarriko. Baina luizia azaroan izanik, zergatik ez zen gastu hori otsailean onartu ziren aurrekontuetan kontutan hartu? Ahaldun nagusia paseatzera ekarri zuten Oriora, baina zertarako balio izan du horrek ez bada inongo diru-laguntzarekin etorri?

ZARAGUETA HERRI ESKOLA

Eskolako baratzerako konposta egiten hasi gara aurten



Konposta egiten hasi gara aurtengoan gure baratzerako. Konposta sortzeko hiru ontzi ditugu, bat adar lehorrak gordetzeko eta beste biak hondakinen eta lehorkinaren nahasketa egiteko eta hiru-garrena. Jangelan sortzen diren soberakinak hartzen ditugu; konposta ontziaren temperatura neurtzen dugu; soberakinak bota eta nahastu egiten dugu. Azkenik, nahastutakoa adar lehorrez esaltzen dugu. Denbora uzten da konposta prest egon arte; eta gero, baratzerara!

ORIOKO HERRI IKASTOLA

Herriko baporetara bisita aberatsa eta atsegina



Arrantzaleen udaberriko kanpaina hasi aurretik, Ikastolako Lehen Hezkuntzako ikasleak herriko baporetara bisitatzea joan ginen. Ezagutzen ez genituen gauza asko ikasi eta ikusi genituen: *puenteak*, hozkailuak, amuak, mutiloak, radarrak... Sukaldeekin eta kamainekin harrituta gelditu ginen, txiki-txikiak baitziren! Oso bisita aberatsa eta atsegina izan zen. Mila esker arrantzaleei hartutako lan guztiarengatik. Erria txikota!

LARDIZABAL HERRI ESKOLA

Aiako ikasleak Barrian egon dira ingelesa ikasten



5. eta 6. mailako ikasleok Barriako barne-tegian egon gara ingelesa ikasten bost egunez. Irakasleak irlandarrak eta eskoziarrak ziren, hortaz, ezinbestean hizkuntza horretan aritu behar izan genuen. Eskolak 9:30ean hasten genituen eguerdiera arte. Bazkalostean tailerrekin jarraitzen genuen eta egunean egindako lanaren aurkezpena eginez amaitzen genuen. Gogorra egin bazitzaigun ere, ongi pasa genuen, lagun berriak egin eta ingelesa ikasteko aukera izan genuen.



Imanol Arruti
Maddi Alkain
Arene Portularrume
Asier Sanchez

Etxeko lanak bai, baina gutxi eta errazak

Egunero gure irakasleak etxeko lanak bidaltzen dizkigu eta arratsalde guztia etxeko lanak egiten pasatzen dugu. Horrek, denbora libre kentzen digu eta kalean gustura egonik, berandutzen zaigunean, azkar eta gaizki egiteko arriskua daukagu. Gainera, etxean liskarra sor daiteke azken momentuan egiteagatik.

Bestalde, etxeko lanak oso zailak badira, ezin izaten dituguk bakarrik egin eta etxekoei laguntza eskatu behar izaten diegu. Gure gurasoei, ordea, hori ez zaie asko gustatzen, haiek ere nekatuta egoten baitira.

Etxeko lanak beharrezkoak direla uste dugu eta honako abantailak ikusten dizkiegu: eskolan ikasten duguna etxean erreparatzeko eta sakontzeko aukera izaten dugu, eskolan bukatu ez duguna etxean bukatu dezakegu, arduratsuak izaten ikasten dugu... Hori guztia gure ikasketetan oso lagungarria suertatuko zaigula iruditzen zaigu.

Oso ondo iruditzen zaigu etxeko lanak bidaltzea, baina guk bakarrik egiteko modukoak izatea eskertuko genuke, eta zailagoak badira gelan azalpena emandakoak eta tamaina egokikoak izatea eskatzen dugu. Horrela, lagunekin egoteko eta jolasteko denbora izango dugu, eta etxean liskarrik gabe egiteko aukera izango dugu.

PUBLIZITATEA

KARKARAren webgune berriaren aurkezpenera joan nahi baduzu moztu eta ekarri gonbidapena



Webgune berriaren aurkezpenera gonbidatzen zaitugu



Maiatzaren 27a, asteartea

Arratsaldeko 19:00etan

Orioko Kultur Etxean



Animatu zaitetz!

Karkara
Inkubator

XS

arKitektura
herrikobarra 6, zarautz

eraikuntza zerbitzuak
errehabilitazioak
obrak
proiektuak
txostenak
ITE-ak
eraikinen mantenua

Borja Agirresarobe Lopetegi
635 731 722

URANGA

burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskalnet.net
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

PERTSIANAK

A
K
O



M
A
Z

Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...

Tel: 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 21



Sagasti
LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI

Tel: 943 13 00 77
Fax: 943 13 21 50
sagasti@sagastileihoak.com
Araitzaile Kalea, 65
48911 ORIO (Gipuzkoa)



Maidor Arrillaga Sarasola - 135. Kol. zenb.
Arrantzale 63 - 20810 - Orio - Gipuzkoa
Tel. 943 575 361

ninarri
PODLOGIA ZENTROA

ARISTERRAZU
jatebxea

Andalza auzoa - AIA
Tel. 943 83 45 21

SARASUA ERRETEGIA

Plater bereziak:

Arrain zopa

Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29

ORIO

Tel: 943 83 00 05/
943 13 25 32

HAIZE BERRI

tailerria-jatebidea-kalitategia

Plater konbinatuak,
bobadak,
hamburgerak,
rugetak,
egonako menuak...

eta etara zuzuneko zerbitzuak

Hala guztiarekin, Ororio 1 - 48100 Orio (Gipuzkoa)



Benito Lertxundi gitarra eskutan. TXANTXANGORRIA

Hiru ordu ederretan bi kontzertu

Kritika Benito Lertxundi

Musika, Kilometroak jaialdiaren aldeko kontzertua Orioko Karela kiroldegian.

Apirilaren 12an, Benito Lertxundik *Oroimenaren oraina* izeneko ikuskizuna eskaini zuen Orioko Karela kiroldegian, datorren urrian gure herrian ospatuko den Kilometroak 14. jaialdiari laguntzeko. Hainbat ekitaldi ari dira egiten ospakizun horien baitan eta beste bat izan zen Lertxundirena. Beste bat, baina berezia.

Gaueko hamarretan eman zitzaion kontzertuari hasiera. Lehenengo abestiekin giroa sortzea kostatu egin bazen ere, entzuleak berotzea alegia, *Baldorbatik* aurrera segituan bereganatu zituzten Benitok eta haren lagunek kiroldegiko zale guztiak. Momenturik hunkigarrienak Orioko herriari maitasun bereziz eskainitako *Mirotzak* eta *Balearen bertsoak* kantuak izan ziren, baita Intza Unanuek abestutako *Bizirik gaudelako* ere.

Amaitzeko, *Zenbat gera* abestia jo zuten taula gainekoek eta Karelana bildutako jendeak *Beste bat, beste bat!* oihukatu ondoren, *Mirotzak* eskaini zuten berriro. Guztira hiru orduko ikuskizun bikaina izan zen Benito Lertxundik, Intza Unanuek, Olatz Zugastik eta musikari taldeak eskaini zutena.

Lertxundik bukaeran umoretsu horrela esan zuen: *Jende askok nahiko luke sarrrera bat ordaindu eta bi kontzertu ikusi..*

JON GARATE



Udaleko kontuak Herritarren haserrea 6 milioi euroko xahuketaren inguruan

Maiatzaren 10ean egin zen bilkuran ludoteka eta Benta bidearen konpontze lanek eztabaida sortu zuten arren, galdera irekien tartean izan zen liskarrik potoloena. Herritarrek EAJri 6 milioi euroko xahuketaren inguruko azalpenak eskatu zizkieten, egia dela ziurtatzeko datu gehiago behar dituztela adieraziz. Gizaker SL enpresak egindako inkestaz ere galdu zuten, guztiz politizatuta dagoela susmatuta.

@karkara.com/albisteak/herritarren-ezjakintasuna-6-milioi-euroko-xahuketaren-inguruan/



HASI TXIOKA

Artisautza azokara joateko ohiturarik ba al duzu? Zergatik?



Aisialdia

Haur eta gazteentzat ekintzak Txurrumuski aisialdi taldearen eskutik

Uztaila nahiz abuztuan zerbitzu ezberdinak eskainiko ditu Orioko aisialdi taldeak: Uda txoko, udaleku ireki eta gazte abenturak, hain zuzen ere. 85 euroko kostua, 80 eurokoa eta 105ekoa daukate, hurrenez hurren. Ekintza hauek burutu ahal izateko begiraleak behar ditu aisialdi taldeak eta udako lan poltsa ireki dute. Guztira, 24 begirale behar dira 2014ko udaran egingo diren ekintzetarako.

Lan eskaintza

Aiako Udaleku irekietarako lan eskaintza

Uztailaren 1etik 31ra, hau da, hilabete osoan zehar Aiako Udaleku irekiak izango dira. Begiraleak taldea osatzeko lan eskaintza irekita dago. Aukeraketa egiterakoan honako irizpideak edukiko diren kontutan: Aiako izatea eta begirale titulua edukitzea; Aiakoa izatea eta titulurik ezean, esperientzia edukitzea; eta Aiakoa izan ezean, begirale titulua izatea. Interesatuak arretapagoeta@gmail.com helbidera bidali dezala curriculuma.

Jendartea

Lapurreta egin dute Anibarko portuan

Apirilaren 9an, egun argitan, lapurretan izan zen Anibarko portuan. Sarraila puskatu, barrura sartu eta balorezko bitxiak hartu zituzten, besteak beste. Lapurrak aztarnak utzi zituzenez bere bila jarri zen ertzaina. Azkenaldian lapurreta asko egiten ari direla jakinarazi zuen ertzaintzak, hortaz, errefortzu bat jartzea gomendatzen du Ertzaintzak. Beldurra ez izateko, baina kontuz ibiltzeko ere aipatu du, eta zerbait arraroa sumatu bezain pronto ertzaintzarekin harremanetan jartzea gomendatu dute.

Jabier Zabaleta @ja2er · apl. 1
Orioko gurasoek sentitzen al dute seme-alabak euskalduntzeko lanak berezia egiteko beharrik? |karkara.com/blogak/euskara... @anateillaro
Zabaitu

Kilometroak14Ori @kmk14orio · apl. 2
Orain Kilometroetako arropa saraan eros dezakezue! ow.ly/yhWRT
Zabaitu

Beris ez tunk poza @IdoiaEzaberra · apl. 8
Aspaldiko partez Euskera batun gutun bat idaztiak uzteun satisfazyuakin! #Earra
Zabaitu

Mikel Orbananos @mikelorbananos · apl. 20
Pausoz pauso aurrera begira gure eskubideak sidamkatuz! Gure esku dago!
#AberriEgun2014... |instagram.com/p/nA1PMhSTB/
Zabaitu



Euskara

Umeak eredu hartuta, gurasoen euskara erabilera hobetzen

Euskararen erabilera gaztetxoan artean indartu egin da Orion. 2013an %88,5ekoa zen gazteen arteko erabilera. Helduen erabilera, ordea, %55aren inguruan dabil. Gaztetxoek asko dute helduei erakusteko eta horri egiten dio erreferentzia Orioko Udalak martxan jarri berri duen kanpainaren leloak *Aita, ama... kontu bat dut zuei esateko!* Euskaraz bizi-bizi egitasmo orokorraren barruan garatuko den egitasmoak guraso gazteen artean euskararen erabilera sustatu nahi du.

@ karkara.com/albisteak/haurrak-eredu-izanik-gurasoen-euskara-erabilera-hobetu-nahian/



Kirola

Giza-proba apustua egingo dute emakumezko bi taldek

Astigarragako Emarri taldea eta Ibarako Emakume taldearen artean izango da apustua, maiatzaren 17an, 22:00etatik aurrera, Aiako probalekuan. Apirilaren 16an Alkar elkartean bildu zire probaren nondik norakoak zehaztu eta kontratua sinatzeko. Paulo Aldalur izendatu dute diru zain, eta 3000 euro daude jokoan. Talde bakoitza zortzi emakumez osatuta egongo dela hitzartu zuten. Pisaketa egun berean izango da, eta harriek 550 kg izango dituela.

@ karkara.com/albisteak/giza-proba-apustua-egingo-dute-bi-emakume-taldek-maiatzaren-17an/

XII. Txakolin eguna ospatu zen Aian apirilaren 13an



@ flickr.com/photos/97102941@N03/sets/72157643934103815/

Arribiribil inguruan errepidea itxi zuten lur-jauziek



@ karkara.com/albisteak/lur-jauziak-errepidea-itxi-du-arribiribil-inguruan/

Benito Lertxundiri elkarrizketa KMK kontzetuaren harira



@ karkara.com/albisteak/benito-lertxundi-1/

ZERBITZUAK**AZOKA**

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Salgai

- Hiru lekutako sofa eta aginte mandodun relax butaka salgai. 2,20 metro luze eta 0,96 zabal. 2,40x1,70ko alfonbra salgai, hainbat kolore eta irudi geometrikoe-kin. 943832219 15:00etatik 17:00etara deitu.
- Etxebizitza ia berria salgai Aian altzariekin. Hiru logela, bi bainu, igogailua eta garajea ditu. Azken solairua. 645484958.
- Garaje itxia salgai Orion, Baxoalde kalean. 677 932428.
- 16 metro² ko garaje itxia salgai Orion, Goiko Kalean. 699 716 253 edo 669 254 741.
- Garajea salgai Orioko Goiko Kalean, Almirante Oa. 645715841 edo 645715840.
- 3 logelako etxebizitza salgai Goiko Kalean. Sartzeko moduan. Prezioa: 210.000€. 630149835.
- Garaje itxia salgai Orioko Goiko Kalean. 649308 092
- Bugaboo Camaleon ume-kotxea eta kukoa salgai. Hiru fundekin -gorria, arrosa eta beltza- eta zaku gorriarekin. Kukoarentzako pikezko zaku zuria eta

barruko funda zuria. Dena 200 euro, xaxis gabe. Oso ondo dago. 606952320

- Inglesina haur-kotxe urdin iluna salgai, berri berria. 350 euro. 606952320

Alokatu

- Lokala alokagai. 38 metro karratu, komuna eta sukaldearekin. Gazteentzako aproposa, plazoleta baten ondoan. 635 731 708 -Oscar
- Baserri bat alokagai Asteasun, bizitzeko moduan. Tf.: 615 790 965.
- Otsaila-ekaina bitarteko 2-3 logelako alokairuko pisu bila nabil. 675711348)
- Etxebizitza alokagai Goiko Kalen. Hiru logela, sukaldea, egongela eta bainugela. 600 euro. 656 708 603 -Amaia.
- Etxebizitza alokagai Orion. Loft erakoa, baratzeta eta terrazarekin. 700 euro. 600 301 350.

Lan eskaria

- Etxeko lanak egiteko emakume bat behar dut, urte guztirako. Ingelesa jakitea garrantzitsua. 699 781963

Lan eskaintza

- Lanerako gogoia eta es-

perientzia daukan emakumea, garbiketa eta zaintza lanak egiteko prest; bai helduei, bai gazteei. 647059103 -Selvia Paredes

- Emakumea lanerako prest. Adineko pertsonen zaintzan esperientzia eta erreferentziak ditut. 630 850 167 -Maria Elena

- Emakumea lanerako prest. Asteburuetan, orduka. Edadekoak zaintzen edo garbiketa lane-tan. 616 136 439.

- Mutila lanerako prest. Adinekoak zaintzeko edo beste edozein lanetarako. Arauzko dokumentazioa eguneratuta. 644 360164.

Auto-partekatzea

- Orio-Miramón teknologia parkea joan-etorri-rako autoa partekatzeko prest. 08:15ean Oriotik abiatu eta 13:30ean itzuli. 655 702 613.

Beste batzuk

- Ingelesa praktikatzeko mintzapraktika jarri dugu martxan Orion. Ostegunero elkartzen gara Antilla tabernan, 17:00etatik 19:00etara. Interesatuak hara agertu besterik ez du egin behar.

ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	06:36 eta 18:53	00:20 eta 12:36	☾
02	07:14 eta 19:30	00:59 eta 13:13	☾
03	07:52 eta 20:08	01:39 eta 13:52	☾
04	08:32 eta 20:49	02:20 eta 14:33	☾
05	09:18 eta 21:37	03:05 eta 15:19	☾
06	10:13 eta 22:36	03:57 eta 16:15	☾
07	11:21 eta 23:47	04:59 eta 17:21	☾
08	12:35 eta ____	06:07 eta 18:31	☾
09	00:58 eta 13:39	07:12 eta 19:35	☾
10	01:58 eta 14:31	08:07 eta 20:28	☾
11	02:48 eta 15:15	08:54 eta 21:14	☾
12	03:31 eta 15:54	09:36 eta 21:55	☾
13	04:11 eta 16:32	10:16 eta 22:35	☾
14	04:51 eta 17:10	10:55 eta 23:16	☾
15	05:30 eta 17:50	11:34 eta 23:57	☾
16	06:11 eta 18:30	12:15 eta ____	☾
17	06:55 eta 19:14	00:40 eta 12:58	☾
18	07:41 eta 20:02	01:27 eta 13:45	☾
19	08:32 eta 20:55	02:17 eta 14:35	☾
20	09:30 eta 21:56	03:12 eta 15:33	☾
21	10:38 eta 23:06	04:15 eta 16:39	☾
22	11:52 eta ____	05:25 eta 17:52	☾
23	00:22 eta 13:07	06:38 eta 19:05	☾
24	01:34 eta 14:12	07:45 eta 20:10	☾
25	02:36 eta 15:08	08:43 eta 21:07	☾
26	03:30 eta 15:56	09:33 eta 21:56	☾
27	04:18 eta 16:39	10:17 eta 22:41	☾
28	05:00 eta 17:18	10:58 eta 23:22	☾
29	05:40 eta 17:56	11:36 eta ____	☾
30	06:17 eta 18:32	00:01 eta 12:13	☾
31	06:53 eta 19:08	00:39 eta 12:50	☾

ZAINTZAKO BOTIKAK**MAIATZA**

- 1ean, Azaldegí.
- 2an, Larrañaga.
- 3tik 9ra, Lasa.
- 10 eta 11n, Etxeberria.
- 12an, Zulaika.
- 13an, Iriarte.
- 14an, Larrañaga.
- 15ean, Mutiozabal.
- 16an, Zulaika.
- 17tik 23ra, Lasa.
- 24an eta 25ean, Zulaika.
- 26an, Larrañaga.
- 27an, Mutiozabal.
- 28an, Etxeberria.
- 29an, Gallo Artífano.
- 30ean, Zulaika.
- 31n, Lasa.

- **Azaldegí:** Urdaneta kalea, 8. 943133183 Zarautz
- **Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17. 943832398 Zarautz
- **Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943832970 Zarautz
- **Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943133814 Zarautz
- **Lasa:** Herriko plaza. 943830936 Orío
- **G. Artífano:** Zigordia kalea, 17. 943134019 Zarautz
- **Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943132983 Zarautz
- **Zulaika:** Bizkaia kalea, 41. 943133994 Zarautz





Karkara.com webgune berria

Interneteko atari berrira egingo du salto KARKARA. Traineru berrian albistek, argazkiak eta bideoak izango ditugu, besteak beste. Freskotasuna. Zuekin egin nahi dugu arraunean internetaren olatuan, hortaz, maiatzaren 27an egingo dugun aurkezpenarako gonbita luzatzen dizuegu.

Orio

Musika

- Maiatzaren 10, Kantu-jira Danbolin Musika Eskolaren eskutik.
- Maiatzaren 16a, Bandaren kontzertua.

Erria txikota astea!

- Maiatzaren 17an, truke azoka eta pintxo pote kulturala
- Maiatzaren 17an, Aukeran dantza taldearen Geltokia emanaldia, 22:00etan, Karela kiroldegian.
- Maiatzaren 18an, Kilometroetako zirkuituari bira, 10:00etan.
- Maiatzaren 18an, haur-jolasak, 12:00etan.

Azoka

- Maiatzaren 11an, Artisautza Azoka, 11:00etatik 19:30era, Herriko Plazan.

Talai Mendi astea

- Maiatzaren 19an, umeentzako tailerrak, 17:00etan kultur etxean.
- Maiatzaren 20an, Slackline umeentzatzat, 17:00etatik 19:30era, plazan.
- Maiatzaren 21ean, *Sri Lankara (Asiako malkoa) 2 hilabetetako bizikleta bidaia* bideo emanaldia, 19:00etan, Kultur Etxean. Hizlariak: Eneritz Odriozola, Joanna Domingo eta Garbiñe Manterola.
- Maiatzaren 22an, *Mendi lasterketetarako orientazio ikastaroa*, 18:30etik 20:30era, Kultur Etxean.

- Maiatzaren 24an, *Mendi lasterketetarako orientazio praktikak*, 11:00etan, Kultur Etxean bilduta.

- Maiatzaren 24an, umeentzatzat rokodromoa eta tirolina, 16:00etatik 19:30era, kiroldegian eta zimitoriorako paretean.
- Maiatzaren 25ean, Kukuarrira irteera, 09:00etan, Herriko Plazan.

Garagardo azoka

- Maiatzaren 19tik 22ra, Orioko arraun elkartek antolatuta, garagardo azoka.

Eskuz binakako txapelketa azkarra

- Maiatzaren 10ean, Etxeratek antolatuta, Orioko eskuz binakako txapelketa irekia, bertsolari eta musikaz girotua. Partida guztiak, arratsalde, frontoian. Izena ematea: Kolon Txikin, maiatzaren 8a arte -doan.
- 17:00etan, paleta larruz, afizionatuen partida: Dabid Arozena-Jon Arruti / Ibon Eskisabel-Tibur Etxeberría.
- 18:00etan, eskuz binaka, afizionatuen partida: Aritz Lertxundi-Julen Urruzola / Xabier Santxo-Iñaki Errazkin.
- Ondoren, Orioko eskuz binakako txapelketako finala.
- Atzetik, saiheskia parrilan eta txorixoa, txotxeko sagardoarekin lagunduta, frontoian bertan.

Bilerak

- Maiatzaren 6an, Sanpedroak antolatutako bilera irekia, 18:30ean, Kultur Etxean.

Erakusketa

- Apirilean eta maiatzean, Goizane Mendizabalen umeen erretratuen erakusketa, Salatxo tabernan.

Aia

Erromeria

- Apirilaren 27an, Agurtzane eta Jon Elustondo, 18:30etik 21:30era, Aristerrazuko plazan.

Giza-proba apustua

- Maiatzaren 17an, Emarri eta Ibarako emakumezkoen giza-proba taldeen arteko apustua, 22:00etan, probalekuan.

Erakusketak

- Ekainaren 30a arte, Vicente Guinea-ren *Animarbolak* erakusketa, Iturrran parketxean.
- Ekainaren 30a arte, Maria Mamertaren *Barru Argia* erakusketa, Iturrran parketxean.

Landare Berezien XII. Azoka

- Apirilaren 26an eta 27an, Landare Berezien Azoka, Iturrrango parketxean.
- Apirilaren 27an, Ikebana tailerra, 10:30-12:00 eta 12:30-14:00, Kultur Etxean. Prezioa: 20 euro. Izena emateko: 630 096 773 edo eskado@gmail.com.
- Apirilaren 27an, landareekin zerikusia duten produktuen azoka, 10:00etatik 15:00etara, plazan.



Aukeratu liburu bat zure herriko Udal Liburutegian, eramanez maileguan, irakurriz gozatu eta itzultitakoan beste liburu bat erosi eta gozatzen jarraitzeko % 25 edo % 50eko balioa duen erosketa-txekea lortuko duzu.

Karkarako laguntzaile izateagatik %50ekoa izango da erosketa-txekea

Apirilaren 23tik ekainaren 30era

www.topagunea.org/irakurri



Antolatzaileak:



Babesleak:



Laguntzaileak:



**HERRIAK
ETA TORIKO
ANTOLATZAILEAK**

Astoria - BERRIBRO
Aranza - Udal Liburutegia - GIBERTOLA
Ayestas - Murgurola - OZAMIZKOLA
Baztan - Udalek
Baztan - Udalek
Biba - Udalek

Bida - TEBEREA
Borja - IZASKA-HEGOLA
Borja - Udalek
Ibañeta - EAKFI
Lizasoain - Euzko Uda
Lizasoain - UDA-IZASKA

Lizasoain - EIZENKETA
Lizasoain - U. Liburutegia
Lizasoain - BARRIO
Lizasoain - BARRIO
Lizasoain - GIBERTOLA
Lizasoain - Udalek

Marika - EARRIKETA
Marika - Udalek
Marika - Udalek
Marika - HIZKETA - Udalek
Marika - Udalek
Marika - Udalek

Marika - Udalek
Marika - Marika
Marika - NI PIZEN
Marika - Udalek
Marika - Udalek
Marika - Udalek

Marika - UDA-IZASKA, U. Liburutegia
Marika - Udalek
Marika - UDA-IZASKA
Marika - U. Liburutegia
Marika - UDA-IZASKA, U. Liburutegia

